

# V. BILTZARRA

Ponentzia Politikoa

Derio, 2011ko irailaren 17an







# Aurkibidea



<b>1.-SARRERA</b> .....	2
<b>2.- EGOERAREN ANALISIA</b> .....	4
<b>2.1.-</b> Krisi ekonomiko, sozial eta politikoaren larriagotze nabarmena.....	5
<b>2.2.-</b> Euskal Herrian, Bakegintzaren eta Normalizazioaren bidean emandako pausoen eta udal eta foru hauteskundeen ostean sortu den osaketa politiko berria, EAEn nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan.....	9
<b>2.3.-</b> Hauteskundeen emaitzen arrazoiak eta ondorioak, eta ARALAR alderdiaren egoera berria EAEn nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan, 2011-V-22 udal eta foru hauteskundeen ostean.....	10
<b>2.4.-</b> Bakegintza eta normalkuntzan emaniko urratsen ondorioz, Euskal Herrian sortu den egituraketa politiko berria.....	16
<b>3.- ARALARREN ERRONKAK</b> .....	20
<b>3.1.-LEHENENGOA.-</b> Zein ekarpen egingo dio ARALAR alderdiak etorkizuneko ezker abertzalearen egiturari, eta zein ekarpen, bakeari, normalizazio politikoari eta berradiskidetzeari? Nola egin behar dira ARALAR alderdiaren ekarpen horiek eta zein eragile politikoren aurrean?.....	21
<b>3.2.-BIGARRENA.-</b> Gernikako Akordioaren garapena.....	25
<b>3.3.-HIRUGARRENA.-</b> Krisi ekonomikoko egungo testuinguruan ezker abertzaleak garatuko duen esku-hartze politikorako proposamenen analisia.....	26
<b>3.4.-LAUGARRENA.-</b> Bakegintza eta normalizazio politikoarekin lotutako perspektibak eragindako egoera politiko berrian ARALAR alderdiak ekarpen etikoa egiteko eta koherentzia politikorako beharra.....	27
<b>3.5.-BOSGARRENA.-</b> Egungo eredu autonomikoa ahitzea eta zaharkitzea, eta ARALAR alderdiaren estatutu alternatiba, erabakitzeko eskubidea barne hartuz, AUTODETERMINAZIOA ETA LURRALDETASUNA kontuan hartzen duen eredu gisa.....	29
<b>3.6.-SEIGARRENA.-</b> Elementu politiko berrien presentzia erabakigarria, 15M mugimendua, adibidez, demokrazia ordezkatzaillearen ereduaren oinarriak astintzen ari da.....	32
<b>3.7. ZAZPIGARRENA.-</b> Ezkerreko estrategien diseinuan sakontzea.....	32
<b>4.- ARALARREN EBAZPEN PROPOSAMENAK</b> .....	34
<b>4.1.-</b> ARALARREN ERREFERENTZIA IDEOLOGIKOAK.....	35
<b>4.2.-</b> SAKONTZE DEMOKRATIKOA.....	37
<b>4.3.-</b> GIZARTE ESKUBIDEAK.....	38
<b>4.4.-</b> INTERNAZIONALISMOA.....	40
<b>4.5.-</b> INDEPENDENTISMOA.....	40
<b>4.6.-</b> HIZKUNTZA, HEZKUNTZA ETA KULTURA ESKUBIDEAK.....	41
<b>4.7.-</b> ETORKIZUNEO EZKER ABERTZALEAREN ELKARLAN ESTRATEGIKOA ETA TAKTIKOA.....	42
<b>4.8.-</b> ARALARREN BERRANTOLAKETA.....	46
<b>4.9.-</b> KOMUNIKAZIOARI ETA KOMUNIKABIDEEI BURUZKO PROPOSAMENAK.....	46
<b>4.10.-</b> MILITANTEAREKIKO ZUZENEO ARRETARAKO PROPOSAMENA.....	46

# 1

# Sarrera



Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordeak alderdiaren Batzarrari proposamena egin zion eta Batzarrak ARALAR alderdiaren V. Ohiko Biltzarra 2011ra aurreratzea erabaki zuen. Ohiko biltzarra denez, alderdiaren subiranotasuna garatzen duen bilerak berezko dituen gaietako bat ere ez da kanpoan utziko. Horiek honakoak dira:

- A)** Garatuko dugun jarduera-lerro politikoa eta ideologia zehaztu behar dituen ponentzia politikoa, baita gai erabakigarrietan hartu beharreko erabaki politikoak eta ekimenak ere. Hori guztia, ARALAR alderdiaren zentzuari, eginkizunari, beharrari eta paperari buruzko analisia kanpoan utzi gabe.
- B)** Barne funtzionamenduko antolamendua eta araudia; alderdiaren estatutuen berrikuspena.
- C)** Gainerako eragile politiko, sindikal, sozial, sektorial eta abarrekiko harremanak, bai orotariko trukeei dagokienez, bai ekintza-batasuna, lankidetzeta edo etorkizuneko beste edozein analisi mailan.
- D)** Planteatutako erronken aurreko erantzun politikoak: hauteskunde orokorrak, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, etab.
- E)** Alderdiaren organo orokorrak berritzea.

Zuzendaritza Batzordeak proposatuta ARALAR alderdiaren Biltzar Orokorrak erabaki bat hartzeak ez du nahitaz esan nahi lehenagoko biltzarretan eta, zehazki, IV. biltzarrean adostutakoa berrikustea; aitzitik, ildo ideologikoaren egokitzapena, egiturak eta aginteak egungo egoerara egokitzea eragin behar du.

# 2

## Egoeraren analisia



ARALAR alderdiak bere BOSGARREN OHIKO BILTZARRA egiteko deialdia egin du, LAUGARREN BILTZARREAN aurreikusitako epea baino urtebete lehenago, hain zuzen. Biltzarra hainbat arrazoiren ondorioz aurreratu da. Arrazoi horiek gure azken Batzar Orokorrean aztertu eta eztabaidatu genituen, eta bertan erabaki zen, Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, Bosgarren Biltzar hau egiteko deialdia:

ARALARREN BOSGARREN BILTZARRAREN deialdia egiteko beharraren arrazoiak, aipatutako Batzar Orokorrean azaleratutakoak, honakoak dira, besteak beste:

## **2.1.- Krisi ekonomiko, sozial eta politikoaren larriagotze nabarmena.**

Etorkizunerako ondorio larri eta nabarmenak dakartza Europar Batasunaren osaketan, Espainiar Estatuaren etorkizunean eta Euskal Herriko egitura instituzional eta organikoan.

2009an IV. Biltzarrean egoera sozio-ekonomikoaren inguruan egin genuen analisia baieztatu eta okerragotu egin da, eta, ondorioz, 2011n analisi hori berretsiz besterik ez dugu egin behar. Egitura eta ereduaren krisi orokor baten aurrean gaude. Argi ikusi da sistema kapitalistan oinarritutako garapen ereduak, nagusitzen ari zena, ez zela ez zuzena, ez iraunkorra, sakonki desorekatuta dagoela eta bidegabea dela; krisia egiturakoa dela ikusi baita, hau da, ez da ekonomiaren krisi ziklikoetako bat, eta ez dago beharrekada edo konfiantza falta huts batean oinarrituta. Mundu mailakoa da, baina ez soilik geografikoki nazioz gairikoa delako, baizik eta sektore ekonomiko guztiei —produktiboiei, kontsumoakoei, finantzakoei eta zerbitzuakoei— eta ekonomiako beste esparru batzuei eragiten dielako. Eredu krisi bat da, hainbat sektore eta esparrutara hedatuz baitoa; finantza krisi gisa jaio zen, higiezinaren boomarekin estuki lotuta, baina zabaldu egin da eta maila guztietara iritsi, eta estatuen finantzaketaren arloa ere iritsi da, zor subiranoaren alorrera, hain zuzen. Garapen ekonomikoarekin lotutako krisi jarraitua sektore jakin batzuetan azaleratuz eta maila guztietan —maila sozialean, baloreenean edo esparru politikoan ere— antzemanez joan da.

Krisiaren gai eta alderdi batzuek estatuen baliabideetatik kanpo utzi dituztela dirudi. Ideologien ginetik arau objektibo batzuk daudela sinetsarazi nahi dute. Mezu hori interesatua eta faltsua da, baina “erreskateen” iruzurrezko eskema eragin eta justifikatu du finantza erakundeentzat lehenbizi eta estatuentzat gero, beren buruzagiek hartutako zorrei eta betebeharreri aurre egiteko gaitasunik ez badute ere.

Ez da erantzukizunik eskatu estatuen finantza espekulazioarengatik —adibidez, Greziako lehen ministro ohi Karamanlis jaunaren kasuan—, Islandian izan ezik, eta ez da higiezinaren sektorea kriminalizatu, araudiak urratzea baino ez delako zigortzen.

Eta estatuek, lehen finantza erakundeekin lotuta, eta Europak, orain estatuekin lotuta, pertsonen prestazioak bermatu besterik ez lukete egin behar, hau da, ez lituzkete estatuen egiturak mantendu behar, horrek bi europar maila eragingo baititu: iparraldeko aberatsak eta hegoaldeko pobreak. Estatuei buruz esandakoa autonomiei ere aplikatzen dakieke.

Erantzunik gabeko gaiak pilatzen ari dira: nazioarteko finantza egitura benetan sistema bat da? Ez, sistemaren kontzeptuaren zentzu juridikoan ez, zuzendaritza, kontrola eta justifikazioa falta baitira; baina ezkerreko ideologiak finantza eragile publikoak sortzea bultzatu behar du.

Beste gai bat da ea nazioarteko ekonomia arautu daitekeen merkatuaren erreferentzia gorenarekin. Argi dago oso zaila dela, baina ideologia aurrerakoen etorkizuneko erronka handia da.

Posible da nazioarteko ekonomia arautzea, nazioarteko kontrol judizialik gabe? Argi dago ez dela bidezkoa, ezta zorrotza ere, baina “munduko justizia” edo “nazioarteko justizia” aldarrikatzea itxaropen gehien pizten dituen helburuetako bat da.

Posible da ekonomia globalizatu bat planifikatzea merkatuetatik aparte? Oso zaila da, oro har; baina, zalantzarik gabe, parametro progresistetatik berrikuntzaren, modernizazioaren eta berrikuntza ekonomikoaren ezinbesteko beste helburu bat da.

Neoliberalismoak estatu eta botere publikoen aktiboen hustuketa sistematiko eta etengabea bultzatu du. Enpresa publikoen salmenta bultzatu da zerbitzu publikoen kudeaketaren pribatizazioarekin batera (negozio huts bihurtuta, eta batzuetan degradatuta). Pribatizazioek botere publikoak ahuldu dituzte. Baina sektore publikoa pribatizatu ez duten eskuineko gobernuak dauzkaten estatuek (Frantzia, adibidez) administrazio indartsuago bat mantentzen dute.

Sektore publikoaren pribatizazioaren aldi berean, antagonikoki, estatuak (orain ez daukate politika monetarioaren baliabidea) eta erakunde publikoak nazioarteko finantza merkatuaren mende jartzea bultzatu da.

Eskuina, oro har, desarautze ekonomikoaren prozesu sakon baten erantzulea da, krisiaren aurretiko urteetan areagotu zena. Prozesu horrek ahalbidetu du erakunde askok egoera bortxatzea jasanezinezko mugetaraino, non arriskua oso handia zen. Multinazionalen zuzendaritza postuetatik merkatuen desarautzea eskatzen eta sustatzen aritu direnek muga horiek desagertzeak geroago eskaini zizkien aukerak modu desegokian erabili zituzten, beren porrota eragin zuten arrisku handiak hartuz. Eta merka-

tuak desarautu zituen eskuin politiko berberak, urte oparoetan zegoen berotasunak kutsatuta, kudeaketa publikoaren alorrean erabaki okerrak hartu zituen, bere herrialdeak egoera ekonomiko larrietara eraman dituztenak, Estatu Batuen eta Greziaren kasuan ikusi den bezala.

Gaur egungo krisiak erakutsi du beharrezkoa dela estatuak ekonomian esku hartzea, sozialismoak beti proposatu duen bezala. Eta erakutsi du ere eskuina, eskuinaren buru politiko eta ekonomikoak, sozialista izaera duten neurriez gogoratzen direla galerak sozializatzeko garaian, hau da, beraiek sortutako galerak herritar guztien artean banatu behar direnean. Hala ere, irabaziak zeuden garaian ez ziren sozializazioarekin gogoratu. Onartezina da eskuinak proposatzea eredu bat non irabazten dutenean merkatuaren legeak diren nagusi, eta irabaziak gorde egiten dituzten, ahal bada zergarik gabe, baina galtzen dutenean, sozialismoa ondo dago besteek galerak bere gain har ditzaten.

Garapen honetan, kritika zabaldu behar zaio ezinbestean sozialdemokraziak eraman duen kudeaketa desegokiari eta zenbait alderdi sozialista eta laboristeri, Espainia, Grezia eta Erresuma Batukoei bezala. Izan ere, horiek eskuinaren politika berdinak jarraitu dituzte, Zapateroren gobernuan Loteriarekin eta AENArekin gertatu den bezala, eta ez dute asmatu eskuinak sorturiko krisiari konponbidea jartzen, Grezia bezalako herrialdeetan.

Alderdi sozialista batzuen eta eskuinaren arteko konplizitate horren adibideetako bat oraintxe gertatzen ari den aurrezki kutxen eraldaketa prozesua da; sektore horrek duela bi urtera arte estatuaren finantza sistemaren %52 hartzen zuen, Rajoy eta Zapateroren artean adostutako eragiketa batean kitatzen ari da (legealdiko akordio orokor bakarra ia), sistemari inolako egonkortasunik edo lehiakortasun osagarririk emango ez dion banku bihurtze eta pribatizazio prozesu batean, eta finantza sisteman indarren korrelazioaren eragiketa espekulatibo eta aldagarri batzuk soilik eragingo ditu.

Ziurrenik politika fiskalaren garrantzia eta horren aurreko jarrera erabakigarria izango da, epe ertain eta luzera, estatuak eta autonomiak ere ito ditzaketen zor publikoen zamaren arazoa konpondu ahal izateko bidea. Zalantzarik gabe, estatuan egitura instituzionalen murrizketa hasiko da, aldundietatik hasita, iragartzen den bezala, eta EAEn Lurralde Historikoen Legea ere epe laburrera sakonean berrikusiko da.

Politika fiskalekiko korrelatiboki, aurrean dugun oinarrizko erronka gizarte politiken, lan eskubideen eta, oro har, ongizate estatua delakoaren —“eredu europarra” ere deitzen diote batzuetan— zerbitzu publikoen multzoa osatzen duten prestazioen murrizketena da. Ongizate estatuaren eredu europarra ezartzearen aldarrikapen sozialak, Estatu Batuetan zein Ekialdeko garatze bidean dauden herrialdeetan,

ukaezinak dira, (AEBetan osasunerako eskubidearen gaineko eztabaida hasi baino ez da egin); baina, bitartean, neoliberalak murrizketen kontu horrekin jarraitzen dute, eta paradoxikoki sozialdemokraziak entzun egiten die.

Politika neoliberalekin aurrera jarraitzen duten bezala, nahiz eta krisi ekologiko bat jasaten ari garen arren, aurrera jarraitzen da baliabide naturalen etenik gabeko us-tiaketaekin. Ikuspegi ekologistatik, ezin pentsatuzkoa denean ekonomiari beste bultzada bat ematea kontsumoa edo obra publikoen bidez. Beraz, beharrezkoa da gure ohiturak aldatzea, gure kontsumo ohiturak, batik bat.

Bestalde, mundu mailako botere banaketa berriak, ikuspegi internazionalista batetik bederen, ekarri beharko luke aberastasunen bestelako banaketa bat. Bizitzen di-hardugun krisi estruktural horrek, nahita nahiez behartzen gaituelako ongizate estatuaren bizi iraupena eta mantenua bermatzeko, gaur egungo eredu sozio-ekonomikoetatik haratagoko politikak aztertu eta inplementatzera.

Krisia mantendu eta sakondu dela-eta, nahitaezkoa da gure uste sendoak eta gure babesa berrestea eta langileen eskubideetan atzera ez egitea, baita zerbitzu eta esku-bide publikoen kudeaketa formulak saiatzeari ere, ekonomia iraunkorren baterako kudeaketa eta sustapen formula errespetuzkoak, eta lehentasuna emanaz ingurumenari garapenaren gainetik.

Euskal Herriari dagokionez, eta IV. Kongresuko erabakiak onartuz, adierazi behar da Gobernu erakunde nagusiak zein alderdi politiko nagusiak krisialdia sortu eta areagotu dituen bide berdinekin jarraitu dutela. Makroproiektu erraldoiekin, eta inbertsio espekulatibo, sostengu gabekoen bidetik. Pribatizazio eta murrizketa sozialen politikekin.

Aipatzekoa da euskal gizateak emaniko erantzun soziala, batik bat euskal sindikalgintzaren bitartez, mobilizazio desberdinen bidez, herritarrak mugiaraziz: grebak, manifestazioak, eta abar. Horrek herritarren artean kritikotasuna areagotzen lagundu du.

## **2.2.- Euskal Herrian, Bakegintzaren eta Normalizazioaren bidean emandako pausoen eta udal eta foru hauteskundeen ostean sortu den osaketa politiko berria, EAEn nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan.**

Batetik, Bilduren presentzia garrantzitsua, eta, bestetik, indar politikoen oreka eta harremanetako desberdintasunak. Horren ondorioz, nabarmen aldatu dira planteamenduak, helburuak eta eragile bakoitzak garatu beharreko paperak.

Egoera politikoaren aldaketak eragile politikoetan du eragin handiagoa beste sektore edo arlo politikoetan baino, ezker abertzalearen sentsibilitate desberdinak osatzen ditugun eragile politikootan, hain zuzen. ARALAR bere biltzar guztietan definitu da ezker abertzaleko sentsibilitateetako bat bezala, eta IV. Biltzarrean oinarri, baldintza eta betekizun ideologikoen, antolamendukoaren eta ekintza politikokoaren gaineko hausnarketa xehe bat egin zuen, eta horietan oinarrituz egingo da ezker abertzalearen antolamenduaren berregituraketa, Euskal Herriak behar duena.

Ezinbestekoa da ARALAR alderdiaren hausnarketak eta oinarri ideologikoak egoera berrira egokitzea. Horretarako nahitaezkoa da aplikatu behar ditugun estrategia eta taktikei buruzko analisi bat egitea.

Analisi hori egiteko, kontuan hartu behar dugu, lehenik —eta beste edozein alderdiren gainetik—, gizartearen egoera, sektorerik delikatuena eta krisi sozio-ekonomikoa mantendu eta indartzearen eragin handiena jasaten dutenena. Makroekonomiaren zifra handiak ikusita, ez dugu ahaztu behar arazorik larrienak jendeak, familiek eta gizarteek pairatzen dituztenak direla, gizartetik baztertuenak eta langabeenak, eguneroko bizitzan sufritzen dutenenak eta, eufemismoen bidez dioten bezala, hilabetearen amaierara iristeko arazoak dituztenenak.

ARALAR alderdia, alderdi guztien kasuan bezala, gizartearen zerbitzura dagoen tresna hutsa da eta, bere ibilbidea aztertzean, bere buruari galdetu behar dio zein neurritan balio duen eta den onuragarria gizartearentzat eta, zehazkiago, gizartearen sektorerik ahulenentzat. Horren harira, pobreziaren gero eta feminizazio handiagoa nabarmenduko dugu. Edozein pobrezia motaren eragina bost aldiz handiagoa da emakume baten ardurapean dauden pertsonen kasuan (%17,2, hain zuzen, eta gizon bat buru duten familietan, ordea, %3,2). Pobreziaren analisisan sarritan aipatzen ez den funtsezko elementu bat eredu patriarkala gainditzeko beharra da, eta sistema kapitalistak berezko duen sistema da. Horra hor, gure apustua egoerarik ahulenean daudenen babesaren aldekoa.

Errealitate hori kalean egonda ikustarazi behar da, komunikabideetan edo baliabide propioetan. Baita gizarte mugimenduekin ere, eta, bereziki, giza eskubideen eta esku-bide sozialen defentsarako manifestazio eta protestetan. Jarduera propioak gauzatzeko gai izatea, beharrezkoa denean egoera eta arazoei erantzuteko edota gizarte plataformak martxan jartzeko.

Jakina, ARALAR alderdiaren V. Biltzarra aurrekoen jarraipena baino ez da, eta, lehenengo eta behin, ezinbestekoa da lehenago onetsitako aurreikuspenak zein mailatan bete diren berrikustea eta etorkizunerako aurreikuspenak aztertu eta adostea.

### **2.3.- Hauteskundeen emaitzen arrazoiak eta ondorioak, eta ARALAR alderdiaren egoera berria EAEn nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan, 2011-V-22 udal eta foru hauteskundeen ostean.**

Hauteskundeak ARALAR alderdiarentzat arreta dei bat izan dira, eta neurri jakin batean NAFARROA BAInentzat ere bai. Analisia egiten saiatu gara, hori egiten ari gara eta ahal bezain sakonki eta zintzoki aztertu behar dugu

Kuantitatibo eta kualitatiboki, NAFARROA BAIn 50.000 botoak eta ARALAR alderdiaren EAEn 37.200 botoak ordezkaritza kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsua dira. NABAI Nafarroako 3. indar bihurtu da, PSNrengandik hurbil, Euskal Herriaren etorkizunerako irudikapen politiko estrategikoa eta lurraldetasunaren aborlatzea da; NABAIk Bilduk baino puntuazio hobea lortu du eta indar abertzaleak eskuineko indarraren aurreko beste aukera bat dira, PSNk bat egin du alternatiba horrekin eta bere giltzarri kontsiderazioa galdu du dagoeneko. ARALAR alderdiak EAEn lortu zituen 37.200 botoak kontuan hartzekoak dira, era berean; ARALAR alderdiak lehenagoko hauteskunde autonomikoetan lortutako botoak dira eta, horrez gain, ezker abertzalea EAEn indar nagusi bihurtu duten botoak dira, gizartean soziologikoki argi eta garbi baita nagusi.

Hala ere, ARALAR alderdiak ez du hiru hiriburuetako batean ere puntuatu, eta Arabako eta Bizkaiko Biltzar/Batzar Nagusietan presentzia galdu du. Hori dela eta, marjinaltasun ezaugarriak dituen indar politiko bihurtu gara, baina Legebiltzarreko taldea mantendu dugu, eta hori oso salbuespen baliotsua da.

Emaitza horien arrazoiak ugari eta askotarikoak dira. Arrazoi batzuk —oso agerikoak eta sendoak— ARALAR alderditik kanpokoak dira, eta horien aurrean erantzuteko oso gaitasun eskasa dugu. Beste arrazoi batzuk ARALAR alderdiarenak eta barrukoak dira, eta analisi sakonagoa merezi dute: autokritika, alegia. Hirugarrenik, emaitza horiek eta

egoera hau eragin dituzten arrazoi batzuk daude, zati batean ARALAR alderdi politikoaren barrukoak eta zati batean kanpokoak.

**2.3.A.-)** ARALAR alderditik kanpoko arrazoen artean, aipatzekoa da, lehenik, Bilduk komunikabideetan izan duen booma, hainbestetan tsunami batekin alderatu izan dena; Bildurentzat lagungarria izan da eta horretaz baliatzen jakin du. Sorturen publizazioa, aurkezpena eta ilegalizazioa gertatu zirenetik Bildu eratu eta aurkeztu zen arte, bide guztia egunkari eta komunikabide guztien azaletan agertu da, kapituluka.

Huteskundeen emaitzek ARALARren izan duten eraginarekin batera, Bilduren fenomeno gertatu da. Huteskondeekin lotutako gertakizun sozio-politiko hori inoiz ez bezalakoa izan da, eta euskal gizartea, Ezker Abertzaleko beste sentsibilitatea eta Aralar errealitate berri baten aurrean jarri ditu.

Emaitza horien azalpena, besteak beste, gizartearen aurrean ARALARren nortasunaren adierazgarri nagusi izan diren arloetan lortu diren aurrerapenak dira, hau da, ETaren ekintzen gaitzespena, indarkeria amaitzeko exijentzia, giza eskubide guztiak errespetatzea, bide politiko hutsak erabiltzea edota gizartearen ezinbesteko normalizazioa. Aurrerapen garrantzitsuak egon dira arlo guztietan, eta behin betikoak ez diren arren, ezker abertzalekoa den eta botoa eman duen gizartearen zati horretako jendea erosoago sentitu da botoa emateko beste arrazoi batzuk bilatzeko.

Ez dugu pentsatu behar ARALARrek kanpainen zehar defendatu dituen planteamen-  
duak —bakea eta normalizazioa lortzeko konpromiso handiagoa exijitzea— okerrekoak edo garaiz kanpokoak direnik, baina egia da gizartearentzat ez direla erabakigarriak izan botoa ematerakoan.

Egia da hausnarketa serio eta arduratsu bat eginez, gaur egun, ezin dela esan helburu horiek erdietsi direnik, baina gizarteak modu oinarrizko eta sinpleagoan ikusten, ulertzen eta sinesten du eta itxaropenak ditu. Gizarteak ez du ETaren aldeko botoa eman, gizarteak ETaren indarkeriaren amaiera planteatzeko jautzia egin dutenen alde bozkatu du. Horrekin batera, kontuan hartu behar dugu ETaren indarkeriari itzultzeak Sorturi lehenengo arazoa, eta nagusia, eragingo liokeela, haiek baitira benetako apustua egin dutenak eta konpromisoa hartu dute, eta, ondorioz, Bilduri ere bai.

Errealitatea da Sortuk eta, ondorioz, Bilduk bere egin dituela planteamendu horiek, ARALARren nortasunaren bereizgarri izan direnak, eta horrek gure boto-emaileak lasaitu ditu eta beren botoaren lehentasun-beharrak ere bai. Bestalde, botoa ematerakoan beste gauza batzuk baloratu dituzte, hau da, nobedadea, batasuna, itxaropenak, boto erabilgarria... eta Aralar ahulagoa izan da horietan.

Gertatukoaren ostean, ARALAR bere termino politikoetan, programatikoetan eta taktikoetan ezer gertatu izan ez balitz bezala mantentzen bada, arrisku handia izango du gizarteak ez ulertzeko, eta litekeena da epe laburrean gertakizunek ARALAR gainditzea. Etorkizuneko ezker abertzalearen esparruaren osaketan pauso argiak ematen ari diren eta gu horren parte ez izatearen hipotesi hutsak hausnarketa sakon bat egin behar dugula esan nahi du.

Bigarrenik, funtsezko gertakizun bat ere egon da, garrantzi ideologiko eta estrategiko handikoa, eta ARALAR alderdian eragina izan duena: onartu eta aldarrikatu den ezker abertzalearen beste sentsibilitatearekin, BENETAKO ESTRATEGIA ALDAKETA, Euskal gizarteari eta herritarrei helarazi zaie eta, salbuespen batzuekin, sinetsi egin dute. **Aldaketa horren mamia estrategia politiko-militar batetik politikoa baino ez den estrategia batera igarotzea izan da. Eta horixe adierazi da oso garbi adibidez – hauteskunde kanpainen baino gehiago- “Bateragune auzia” delakoan eginiko deklarazio ugarietan.** Hori ARALAR alderdiaren tesiaren arrakasta da, baina ARALAR gabe.

Ezker Abertzaleko beste sentsibilitatearen aldaketa estrategiko kopernikar hori —indarrak bestela biltzeko ezintasunak eragindakoa— ideia “atzaezin” gisa finkatu da (kontzeptu hori aspalditik jaso dute beren mezuan) hauteskundeetako emaitzekin eta instituzioetako erantzukizunak beren gain hartuta. Ez da ahaztu behar eta positiboki baloratu behar da Ezker Abertzaleko beste sentsibilitatearen, kasu honetan HBren hasierako urteen kontrako norabidean doala; izan ere, “instituzioetan ez parte hartze-arren” ez zuen GFaren buruzagitza onartu.

Estrategia aldaketa horren mezua —eta gainera horrela ulertu eta sinetsi du ezker abertzalearen sektore sozio-politikoko zati handi batek— bultzatu egin dute, hau da, boto-emaileek saritu egin dute, botoak funtsezko osagaia baitu, xede-osagaia, alegia. Bultzada horrekin, Ezker Abertzaleko beste sentsibilitateak agindu bat jaso du, eta, zalantzarik gabe, politikoki epaitu egingo dute. Agintaritza hori betetzeko, Ezker Abertzaleko beste sentsibilitateak baliabide batzuk dauzka, baina ez dauzka beharrezkoak diren guztiak; besteak beste, epe luzera esparru ideologikoarekin lotutako barne kohesio ezinbestekoa falta zaio, baita barruko gizarte zilegitasuna ere, eta hori bake eta normalizazio politikoaren bidean zuzen, duintasunez eta sakonean lan eginez egin behar du. Gai horretan —lurraldetasunaren gaian gertatzen den bezala—, ARALAR parte eta berme da, zalantzarik gabe, eta hori frogatzen du Gernikako Akordioaren iragan sozio-logikoak.

**2.3.B.-)** Alderdiaren barruko egoera politikoarekin lotutako arrazoi batzuen ondorioz ere izan ditugu hauteskundeetan emaitza horiek eta dugu oraingo egoera alderdiaren barruan, eta ARALAR alderdiak zintzotasun osoarekin eta inolako mugarik gabe analizatu behar ditu.

Hasteko, alderdiaren mugak onartu behar ditugu. Baliabide ekonomiko urriak, komunikabide propiorik edo gurekin bat datorrenik ez izatea, komunikabide askoren jarrera hotza edo aurkakoa... Horrez gain, aipatzekoa da egitura mugatuak ditugula. ARALAR alderdia oso poliki ari da hazten, eta oso militante gutxi izaten jarraitzen du.

Baina arazo guztiak ez dira egiturazkoak. Gogoan izan behar da hauteskundeetako ehuneko handi bat ez dela kanpainetan galtzen, legegintzaldian baizik; eta, kasu askotan, ez dugu lortu profil politiko propioa izatea, eta ez dugu lortu borroka eta aldarrikapen jakin batzuetan buru izatea. Horren isla izan dira, agian, kanpainen transmititutako mezua eta jarrera. Irakinaldi politikoko eta gizarte krisi larriko unean, gure jarrera eta gure mezua, beharbada, hotzak eta zuzenegiak zirela eman du, eta ez da ezkerreko pertsonen eta abertzaleen arteko sentimendu eta pertzepzio zabalduekin bat etorri.

Gainerako alderdi guztiek, salbuespenik gabe, oso gogor jokatu dute gurekin eta batek ere ez du egin eskerrak emateko imintziorik, adibidez, NAFARROA BAiren kasuan erakutsi dugun eskuzabaltasunagatik edo izan dugun jarreragatik eskerrak emateko.

ARALAR alderdiak 2011-05-22ko hauteskundeak baino lehenagoko negoziazioak eta erabakiak berrikusi eta analizatu behar ditu, baita alderdiaren norabidearekin lotuta gauzatutako kudeaketa lana ere.

Zentzu horretan, beharrezkoa da berrestea ARALAR alderdiak POLO SUBIRANISTA eta EZKERREKO BATASUNAREN (ABERTZALEA) eztabaidan duen jarrera edo iritzia ez dela behar beste zehaztu, edo, gutxienez, gizarteak ez duela ongi ulertu. Agian, hasteko, jarrera horrek kontraesanak ditu. Batetik, ARALAR NABAIREN sustapenaren protagonista izan da, eta horrek, antza denez, polo subiranistaren eduki handiagoa du Ezkerreko batasunekoarena baino; nahiz eta praktikan —kasu gehienetan—, NABAIREN programa eta ekintza politikoa izan diren ezkerrekoak: fiskalitatea, gizarte politikak, ingurumena, etab. Hala ere, ARALAR alderdiak ez ditu ekintza-batasun berak bultzatu EAEn, EBren koalizioa kenduta. Ez dira gaitzetsi behar, gainera, beste indar batzuek —EAK, adibidez— markatutako kontraesanak; izan ere, noraezean ibili badira ere eta ideologikoki koherenteak izan ez diren arren, eta edozein exijentzia ideologiko baztertu badute ere, kontrako irudia eman dute. Laburbilduz, ARALAR alderdia, NABAI bultzatu zuen indar politikoa den arren, azken hauteskundeetan ez da aurkeztu batasunaren

aldeko alderdi gisa; aitzitik, kontrakoaren etiketak jasan behar izan ditu. Neurri batean, Nafarroan EAJrekin koalizioan egotea ARALAR alderdiarentzat KOSTU bat izan da nolabait; batez ere, EAJ ZAPATEROren gobernuaren euskarri nagusi bihurtu denetik (gai horretan EAOren oniritzi inplizitua daukala diote, eta Rajoy Moncloara iritsi baino lehen tarte bat behar duela esan daiteke).

**2.3.C.-)** Egungo egoeraren arrazoiak —ARALAR alderdiaren barrukoak dira zati batean eta kanpokoak beste zati batean—, egoera honetara ekarri gaituztenak, hauteskunde-kanpainan, kanpainari ekiteko moduan, bertako mezuetan eta garapenean bertan ikusi dira:

ARALAR bezalako alderdi bat, ezker abertzaleko sentsibilitateetako bat, **BEHARREZ-KOA da euskal gizartearentzat bere ideien ekarpenak, proposamenak eta mezuak BI bidetatik bideratzeko; bata, baketzearen eta normalizazioaren bidea, eta, bestea, ezker abertzalea indar politiko horren eduki politiko guztietan berritzeko, ekintza politikoaren nagusitasunetik eta bere izaera eraldatzaile, eraginkor, feminista eta ekosozialista.**

Egia esan, orain, euskal gizartearen zati handi baten ustez, ARALAR alderdia EZ da ikusten Euskal Herriaren garapen politikorako BEHARREZKO FAKTORE bat bezala. Hori oso pertzepzio zabaldua da. Hala ere, ARALARren Batzar Orokorrean bertan nahiz gizartearen sektore politizatuago guztietan, ARALAR alderdiaren beharra eta egon den aldaketa politikoan jokatu duen papera ezinbestekoak eta funtsezkoak dira etorkizunerako, orain arte izan diren bezala edo are gehiago.

Nahikoa izango litzateke gure alderdiaren historiari begiratzea ARALAR alderdiaren historia osoan ia indar txiki bat bezala beti ikusi gaituztela (Nafarroan izan ezik), eta, hala eta guztiz ere, gure esku-hartzearen eragina eta euskal politikan eta, zehazkiago, ezker abertzalean gauzatu dugun ekintza funtsezkoa izan da, existentzia edo presentzia hutsagatik ekintzagatik baino gehiago. Gure ekarpenaren izaera ideologiko eta, ondorioz, sozio-politikoagatik, hain zuzen ere, eutsi egin diogu ARALAR alderdiaren kontrako suntsipen-aldarrikapen ezinezkoari —eta hobe da ez kalifikatzea—; eta, egia esan, egungo egoera, eta, funtsean, aldarrikapen hori —kalifikatu gabea— ez lirateke diren bezalakoak edo atzeraezinak izango.

Nafarroari begira, NABAik eta ARALARrek lortu ditugun emaitzak agian ez dira izan lortu nahi genituenak; baina, gertatutakoa ikusirik, positibotzat jo behar ditugu. Ia 50.000 boto, Parlamentuan 8 kide eta Iruñean 7 zinegotzi lortu ditugula kontuan hartuz, Nafarroan indar garrantzitsua izaten jarraitzen dugu, eta erabakigarriak gara etorkizunerako. Hori guztia lortu dugu egoera zailean aurkeztu garen arren, barruan zatituta gaude eta aurkeztea oztopatzeko jazarpena jasan dugu: emaitzak onak izan dira.

NABAik —eta, ondorioz, ARALARrek— Nafarroan lortutako emaitzek Sortuk eta EAK —orain Bildu— gu desagerrarazi edo xurgatu nahi izanak porrot egin zuela islatzen dute. Bota diguten pultsuari eusteko gai izan garela frogatzen dute. Hauteskunde partikularrak irabazi dizkiegu eta, horri esker, Aralarrek gure proiektua manten dezake eta EAeko emaitzei, zati batean, aurka egin diezaieke.

Nafarroan, EA eta Sorturekin batera joateko aukerarekin lotuta, 2007an botoa NABAiri eman zioten pertsonen zati garrantzitsu bat ez zegoen prest Sortu barne hartuta bozkatu eta babesteko, eta, hori egin izan bagenu, gure babes soziala galduko genukeen. Emaitzek planteamendu hori berresten dute, NABAik eta Bilduk lortutakoen batuketa oso onak dira eta nekez lortuko genituen elkarrekin aurkeztu izan bagina. Nolanahi ere, ezin dugu jakin zer gertatuko zen horrela jokatu izan bagenu. Nafarroako bigarren indarra izango ginela argi dagoela ematen du, hau da, PSNren oso gainetik eta UPNrekiko distantzia laburtuz.

Sortu-Bildu eta ARALAR-NABAiren arteko etorkizuneko harremani dagokienez, emaitza horiek lagungarriak dira lankidetzeta edo topaketei klabe nazionalan ekiteko. ARALARrek EAEn izan duen beherakada hemen lortutako indarrak eta Nafarroak edozein proiektu nazionaletan duen garrantziak konpentsatzen dute.

### **2.3.1.- Egoera berriaren ondorioak.**

Beti esan izan dugu beharrezkoa zela Batasunari hauteskunde arloan aurre egitea, hur-bilketa serioak planteatu baino lehen eta, guretzako baldintza zailetan gauden arren, dagoeneko aurre egin diegu eta emaitzak direnak dira. Gizarte berarengana zuzendu gara, haren lehentasuntzat jotzen genituenak defendatu ditugu, eta gizarteak bere aukeraketa egin du.

Egia da esan daitekeela denbora igarotzen utzi behar dela, olatuak atzera egingo duela eta gauza guztiak beren lekura itzuliko direla. Baina teoria hori nahi edo itxaropen bat da, ez hausnarketa politiko objektibo bat. Argudio horrek, gainera, guztia karta bakar-rera jokatzeko ekarriko luke, eta gaizki ateratzen bazaie hemen egongo gara zain, baina ez dakigu zenbat denbora itxaron beharko dugun, eta, gainera, ongi ateratzen bazaie, ezker abertzale zibil eta askotarikotik —ARALARren ezaugarria izan da— kanpo gertatuko gara betiko.

ARALARrek une honetan gaitasun kritiko bikoitza garatu behar du. Batetik, lortutako emaitzetan negatiboki erabakigarriak izan diren ezintasun propioak eta akatsak autokritikoki argitzeko gai izan behar dugu, arazo horiek zuzentzeko neurriak planteatzeko. Bestetik, garrantzitsua da Bilduk jaso dituen emaitzen irakurketa eskuzabal

eta positiboa egitea, kontuan hartuz herrialdearentzat erabakigarriak diren gaitan ezker abertzalearen esparrurako aurrerapen argi bat eragiten dutela, eta inoiz ez bezalako babes soziala ematen diotela ordezkatzeko dugun hauteskunde esparru politikoari.

#### **2.4.- Bakegintza eta normalkuntzan emaniko urratsen ondorioz, Euskal Herrian sortu den egituraketa politiko berria.**

Gernikako Akordioaren ondorioz, EAOnen “aldaketa estrategikoa” rekin batera —da goeneko politikoki objektibotu eta “atzerazekin” gisa konprometitu da—, beharrezkoa da sakoneko berrikuspen bat egitea, eta oraindik ez da objektiboki garatu, bai ezker abertzalearen sektore osoaren osaketan, bai garapen politiko orokorrean eta, zehazki, baketze eta normalizazio politikoko estrategietan. Lehenengo eta behin, 2004ko Anoetako Proposamena amaitu eta ezeztatzea dakarte, eta, bertan, negoziazio gai jakin batzuk ETArri egozten zaizkio eta haren esku uzten dira, hala nola biktimekin eta preso politikoekin lotutakoak. Negoziazio ereduaren amaiera eta likidazioa dakarte, “Loiolakoa” eta haren aurrekoak bezalakoak. Gernikako Akordioa, bere baldintza propio eta zorrotzekin, osoki —bere zortzi puntuekin— betetzeko beharrezko adierazgarri da. Hainbestetan errepikatutako baieztapena, hau da, baketzearen eta normalizazio politikoaren ibilbide-orria dela, betebeharrak politiko premiazko eta saihestezin bihurtu da.

Beharrezkoa da zehaztea, labur bada ere, zein den Anoetan 2004an aldarrikatutako proposamena gainditu dela eta zaharkituta geratu dela esateko arrazoi politikoak. Estrategia aldaketa bat onartu delako esan daiteke hori, eta horrek beste hitz batzuekin adierazita esan nahi duena da onartu egin dela bide politikoak lehenetsi behar direla eta bide horretatik soil-soilik jo behar dela. ETA ez da (eta ezin da izan) preso politiko guztien ordezkari. Pertsonak dira, eta, pertsona gisa, desberdintasun ideologiko handiak izan ditzakete, baina ez soilik antolamenduari edo borroka armatuari dagokienez.

Izatez, Gernikako Akordioan presoekin lotutako aldarrikapenei heltzea edo konpontzea ezin da “gatazkaren konponbide” huts gisa definitu, ezta aldi baterako beste edozein termino gisa ere, hainbat arrazoiren ondorioz: A) Anoetako eskemak errepikatzea ekarriko lukeelako, eta guztiz gaindituta daude. B) Beharrezkoa delako, behingoz, kartzela-onurak ez onartzeko printzipioa gainditzea, nolabait amore eman delakoan. Iritzi edo irizpide hori —denbora luzez iraun du eta sufrimendu handia eragin du— atzerakoa da eta “beste” onura batzuk onartzearen kontra doa, adibidez, fidantza ordainduz behin-behineko askatasuna onartzea, beti jo baita zuzentzat. Gainera, analizatzen den arren, ez da koherentea ETArekin lotutako gertakizunen ondorioz kartzelatzen diren presoak preso politikotzat jotzearekin; kartzelako onura guztiak aldarrika ditzaketelako presoak izanik, amnistiatik hasita, eta hori Gernikako Akordioko testuan jaso da ARALAR alderdiaren ekimenez.

Preso politikoaren gaian, bakegintzaren inguruko bi ikuspegi (sentsibilitateen) arteko eztabaida ideologikoa honakoa da: ikuspegi tradizionalak (EAO oraindik defendatzen du) gai hori erakundearen esku uztea aldarrikatzen du (Anoetako eskema); alegia, aldiari dagokionez ez ezik izaera politikoari dagokionez ere baztertzea esan nahi du, ikuspegi horretatik gai horren ebazpenak **prozesuaren ondorio izan behar duela** pentsatzen baita. Gernikako Akordioaren testuan, eta ARALAR alderdiaren ikuspuntuaren arabera, **biktimen gaiari heltzea prozesuaren parte da**, berehalako irtenbideei eta partzialei dagokienez nahiz behin betiko konpontzea lortzeari dagokionez, eta horregatik garatu behar dute presoek eta eragile politikoek.

Beharrezkoa da, era berean, Anoetako Aldarrikapena gainditu dela arrazoitzea biktima guztien irudi politikoaren garrantzian eta horrek bakegintza prozesuan izan duen eraginean, bakegintza sozialean eta gizartearekin lotuta egin behar den berrikuspenean oinarrituz. Biktimen aintzatespena eta ordaina bakegintza eta normalizazio politiko-rako prozesuaren parte dira, ez dira horren ondorio hutsa. Biktima guztien —eta indarkeria ororen— gaia ezin da denboran atzean utzi, prozesuaren osteko une batean, eta ezin da maila politikoan ahulduta eta, ondorioz, ETaren esku-hartzearen menpe geratu, Anoetako Aldarrikapenak egiten zuen bezala.

Gernikako Akordioaren bitartez, gaindituta geratu da Loiolako negoziazio eskema, baita horren aurrekoena ere. Gernikako Akordioan jasotako bakegintzarako ibilbide-orriaren izaera eta ezaugarriak, teorikoki nahiz praktikoki, beren aldebakartasun ikuspegiaren oinarritzen dira.

Aldebakartasun-printzipioak eta horren ondorioz indarkeriaz baliatzeari uzteagatik inolako prezio politikorik ez egoteak duintasun enblematikoa barne hartzen dute nolabait; horrela jokatzek, termino politikoetan, ETaren historiari duintasuna emango lioke eta bere ibilbidearen berrikuspen enblematikoa (ezinbestean egingo da) termino politikoetan egitea ahalbidetuko luke, eta, bereziki, ate eta aukera politiko guztiak zabalik utziko lituzke (autodeterminazioa, lurraldetasuna, independentzia...). Aitzitik, ETA protagonista edo parte-hartzaile izanik negoziazio politiko bat egingo balitz, negoziazioaren baldintzak eta amaiera zeinahi izanda ere, bestelako zeinahi lorpen politiko osagarri ateak ixteaz gain (Nola espero daiteke militarri lortutakoa baino gehiago?), erdietsitako lorpen hipotetikoak deslegitimatuta geratuko lirarteke funtsean.

Gernikako Akordioak ekarri duen aldaketa ideologiko kopernikarra ez da analizatu oraindik, eta ez da osotasunean onartu eta garatu, eta ARALAR alderdiari dagokio sakontze hori ideologikoki zuzentzea.

Horiek dira, zalantzarik gabe, ARALAR alderdiak ezker abertzalearen eta Euskal Herriko esparru abertzalearen etorkizunari egingo dizkion ekarpenak.

Ez lurraldetasuna, ez autodeterminazioa, ez preso politikoen amnistia, ezta alderdi politikoak legeztatzea ere ezin dira ikusi jarduera armatuarekin amaitzearen truke erdietsiko diren lorpen edo baldintza gisa. Aitzitik, jarduera armatua uzteko erabakiak alde bakarra izan behar du, eta aipatutako helburu guztiak helburu demokratikoak eta politikoak dira, borroka ideologiko, politiko eta demokratikoaren bitartez eta giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen aldarrikapenean oinarrituz bilatu eta lortu beharrekoak.

ARALAR alderdiak oinarritzotzat eta arrazoitzat jo du bide politikoak, baloreak eta irizpide etikoak soil-soilik erabiltzea. ESTRATEGIA ALDAKETA bat egon den edo egoten ari den alegazioa (estrategia politiko-mitilarretik estrategia politiko hutsera) eta borroka armatuaren garaia igaro delako esaldiaren bidezko azalpena (are gehiago estrategia aldaketa hori indarrak pilotzearen antzeko helburuekin lotuta dagoela diotenean) ez dela behar besteko arrazonamendua pentsa daiteke; eta, zalantzarik gabe, etikoki egia da. Baina egia da, era berean, praktika politikoan ondorio batera daramala, eta ekintza eta jarraibide mailako antzekotasunak eta analogiak printzipioak eta irizpideak batzen dituela azkenean.

ARALAR alderdiaren ustez, aurreko atalean azaldutakoen antzeko arrazoiak direla eta, gizarte baketzea nahitaezko helburu bat ez ezik, aldaketaren egiazkotasunaren frogatzaile bat da, eta aldaketa atzeraezina dela frogatzen du. Zalantzarik gabe, aurkakotasun jarrrerak, giza eta gizarte harremanetako zikoizkeria eta oldarkortasuna sakonean zuzentzen ez badira, gizartean ez da bakerik egongo, eta, ondorioz, ez da egungo egoeraren atzeraezintasuna bermatuta egongo. Gainera, “gizarteko bakea” etorkizunaren berdintasunezko berrikuspen zuzena egiteko oinarria da.



# 3

## Aralarren erronkak



Egoera berrian, halere, beharrezkoa da zintzoki eta ahal bezain sakonki analizatzea zein neurritan eta zertarako DEN EZINBESTEKOA ARALARREN EXISTENTZIA ETA EKINTZA Euskal Herriarentzat eta etorkizuneko ezker abertzalearentzat, eta, erantzuna baiezkoa bada, beharrezkoa da etorkizuneko ekintza politikoko jarraibideak zehaztea. Gai horiek ARALAR alderdiak bere alternatibak planteatu dituen hainbat gai desberdinen erreferentzia gisa garatu behar dira:

### **3.1.-LEHENENGOA.- Zein ekarpen egin dio ARALAR alderdiak etorkizuneko ezker abertzalearen egiturari eta zein ekarpen bakeari, normalizazio politikoari eta berradiskidetzeari? Nola egin behar dira ARALAR alderdiaren ekarpen horiek eta zein eragile politikoren aurrean?**

ARALAR alderdiak etorkizuneko ezker abertzalearentzako ekarpen gisa planteatu behar dituen ekarpen, baldintza edo exijentziak gure historian zehar formulatu ditugun ideia eta proposamenen barruan daude, eta BOST ataletan laburbil daitezke:

**1.-) Bakea, baldintza edo ordainik gabea, oinarrizko eta lehenengo aldarrikapen gisa.** Bakea, modu aldebakarrean eta ordain, baldintza edo atzerapenik gabe bilatua. Bakea, berezko balore gisa, gizarte adiskidetzeko oinarri gisa. Bakea, garaile eta garaiturik gabe, non indarkeriaz baliatzearen ondorio guztiak konponduko diren. Biktima guztiei, edozein indarkeria, ideologia edo jarreraren ondoriozkoak izan. Preso politiko eta kontzientziako guztiei, horien ideologia, arazo desberdinen aurreko jarrera edo antolamendua zeinahi izanda ere.

Presoen eta biktimen gaia jorratu eta konpontzea ez da auziaren konponbidearen ondorio, konponbide horren zati bereiztezina da eta ez da ondorengo inolako estadiotara baztertuta geratu behar.

Bakegintzaren oinarri eta ikuspegi etikoa berradiskidetzeko baldintza bat da. ARALARrek, indarkeriarik gabe, Euskal Herriaren azken urteetako iraganaren analisi kritiko ezinbestekoa bultzatzeko konpromisoa hartzen du, eta behar besteko distantziarekin aztertu behar da Euskal Herrian beren giza eskubideen urraketa jasan duten biktima guztiek pairatu duten indarkeria politikoa.

ETAk indarkeria baztertzeko erabakia alde bakarra izatea duintasun etikoko exijentzia bat da borroka armatua amaitzeko; izan ere, indarkeria baztertzeko truke aurrerapen edo lorpen politikoren bat lortuko balu, politikoki justifikagaitza izateaz gain, beste edozein aldarrikapenerako muga bat eragin lezake.

**2.-)** Giza eskubide, eskubide zibil eta eskubide politiko guztien defentsa esplizitua eta salbuespenik gabea. Herritarren berdintasunaren oinarria da, demokraziaren fundamentazio sakona eta adiskidetzea lortzeko oinarria.

Alderdi politiko guztien legeztatze sendo eta argia eta hori galarazten duten legeak eta epaiak baliogabetu eta ezeztatzea, baita legedi eta jurisdikzio bereziak ere, normalizazio politikoa lortzeko baldintzak dira.

**3.-)** Ezkerreko egitura politiko eraldatzaile eta eraginkor bat osatzea ekosozialismoaren esparruan. Adierazi bezala, elkarriketa politiko eta sozialaren aldeko ideologiarekin eta gainerako indar politikoeekin akordioak lortzeko gaitasun eta bokazioarekin.

Ezker abertzalea barne-hartzailea eta berdintasunezkoa den gizarte bat lortzeko eraginkortasunez lan egiten duen indar bat bezala egituratuko da, pluraltasuna, justizia soziala eta benetako iraunkortasuna printzipio eta helburu izanik. Horretarako, gizartearen hainbat sektore eta esparrurekin lan egingo du, eta bere esku-hartze politikoan haien proposamenak barne hartuko ditu.

**4.-)** Erabakitze edo autodeterminaziorako eskubidearen eta lurraldetasun eskubidearen defentsa, oinarri demokratikoko eta errealismo politikoko parametroetan oinarrituz eta pluraltasuna zorroztasunez errespetatuz.

Euskal Herriaren herri baldintzak berezko dituen eta bere independentziarako ezinbestekoak diren 2 helburu politiko horiek —AUTODETERMINAZIOA/ LURRALDETA-SUNA— ez dira, izatez, ez alde aurretiko baldintza, ez bakerako betekizun. Horrela jaso da, argi eta garbi, Gernikako Akordioko testuan. Hori aurrerapen garrantzitsua da, eta, bertan, ARALAR alderdiaren ekarpen ideologikoa erabakigarria izan da. Helburu horien tratamenduari ondorengo oinarri hauetatik ekin behar zaio:

- Hiru erabaki esparruak, indar korrelazio desberdinaren arabera erritmo desberdinekoak, onartzea: EAE, Nafarroa-NFE eta Iparraldea. Onarpen hori aipatutako erabaki esparruak sozio-politikoki onartzen direla bermatzeko irizpide demokratikoetan oinarritzen da.

- Egungo egoera autonomikoa onartzea, EAE-NFERi dagokionez garatzeko abiapuntu gisa, Iparralderako estatutu aldarrikapenarekin batera. Ezker abertzaleko beste sentsibilitatea, pixkanaka-pixkanaka, ARALAR alderdia arlo honetan egiten ari den proposamenak onartzen ari da, baina oraindik erresistentzia batzuk daude, eta, are gehiago, ziklikoki, iraganeko deskalifikazio saioak gogoratzen dira.

- ARALAR alderdiaren ustez, beharrezkoa da arlo ekonomiko, sozial eta kulturalen dagoeneko dauden harreman egonkorren antzeko lankidetzaren egitura politikoak eratzea Euskal Herriko lurraldeen artean, gizarteak bilakaera fase bakoitzean egiten dituen benetako eskaerei erantzuteko, eta, hori guztia, independentziaren aukera politikokoekiko errespetuan oinarrituz, besteekin bezala, eta erabakitzeko eskubidean oinarrituz. Lotsagarria da XXI. mendean egonda oraindik EAE eta Nafarroaren artean harreman politikorik ez egotea.
- Estatutuak berritzeko proposamena, eta erabakitzeko eskubidea barne hartzea demokraziarako eta har daitekeen bide bakar gisa; EAE, NFE eta Iparralde. Beharrezkoa da ARALAR alderdiak defendatzen dituen proposamen horiek gauzatzea.

Proposamen hori pixkanaka ulertzen ari dira, baina ezker abertzaleko beste sentsibilitatearen sektore batzuek ez dute onartu oraindik. Poliki onartuz joango dela aurreikus daiteke, baina gogoan izan behar dira duela ez hainbesteko gertakizun batzuk, hala nola “autonomismoa” egotziz deskalifikatu edo iraintzeko saio batzuk.

Estatutu berrietako proposamenek —aldarrikatzen dugunari jarraiki—, erabakitzeko eskubideaz eta hori garatzeko eskumenez gain, herritarren kontzeptuaren ikuspegi moderno eta aurrerakoa barne hartzen dute —barne hartu behar dute—, herritarren eskubide eta nazionalitatearen aukera gisa.

Zentzu horretan, identitatearen arazoa ezin da planteatu etsai/lagun terminoetan. Euskal identitatearen defentsa, ARALARren ardatzetako bat, landuko da identitate desberdinen begirunetik abiatuta.

**5.-) Barne egituraketa demokratikoa.** Ezker abertzalea esparru politiko plurala —zibila eta zabala— dela esplizituki eta benetan onartzea, zalantzarik gabe, ezker abertzalearen esparru politikoa antolatu eta berrantolatzeko oinarri eta baldintza errealista bakarra da. Gainera, alderdi eta agente politiko moderno guztiak antolatzen eta oinarritzen dira horietako bakoitzaren barneko dibertsitatearen onarpenean.

Etorkizuneko ezker abertzaleak militante-egitura bat behar du, betebeharrak eta eskubideak dauzkaten subjektu gisa, kongresuetan esku har dezaten, kontuen azalpen demokratikoa jaso eta exiji dezaten eta joeraka antola daitezen.

Atal honetan bigarren gai bat planteatu da, hau da, baldintzak nola beteko diren; alegia, zein modutan igaro behar dugun ezker abertzalearen osaketa berrira. Egia esan, ezinezkoa da haren modu eta era guztiak osoki aurreikustea. Hala ere, beharrezkoa da

HIRU baldintza edo exigentzia zehaztea; itxuraz formalak dira, baina hiru berme edo ezinbesteko baldintza dira ezker abertzaleak lehen aipatutako baldintzak bete ditzan:

- Ezker abertzaleko bi sentsibilitateak —eta hiru egiturak: AB, SORTU eta ARA-LAR— elkarrizketa, negoziazio eta akordio prozesu bat irekitzeko prest egotea. (Zalantzarik gabe, ezker abertzaleko sentsibilitateetako batek etorkizuneko indarra bere aldetik eta bere indarrarekin soilik egituratzeko tentazioa dauka. Jarrera horrek antzutasunaren hazia dauka bere baitan; izan ere, ezinezkoa da egoera berriaren zilegitasuna baieztatzea baldin eta ez badago adostasunik historikoki ezker abertzalean egon diren bi sentsibilitateen artean).
- Ideologia desberdinen arteko pertsonen artean, sustatzea eta garatzea elkarbizitzarako normalizazioa.
- Beharrezkoa da kontu handiz analizatzea beti fronte, polo edo plataforma politiko itxura duen edozein proposamen politiko. Batzuetan, erantzun taktiko egokia izan daiteke, baina ezin du oinarritu ideologikoki egonkorra den osaketa baten oinarritzko egitura.
- Elkar ulertzeko jarrera islatzen duten eta elkarlanean aritzeko eta elkartzeko jokabideak egonkortzea bultzatzen duten lankidetzak politikoko prozesuak egotea. Ezinezkoa da bateratze estrategikoa lortzea epe laburrean praktikan lankidetzan aritzean oinarritu gabe.
- Ekosozialismoaren markoaren barruan, ezkerreko politika eraldatzaileak eta eraginkorrak garatuko ditugu pertsona eta ingurumenaren arteko harreman orekatua bilatuz. Ikuspuntu ekologista batetik jardungo duena ingurumenaren ondarearen mugak kontuan izanez; eta baita ikuspuntu sozialista batetik ere, hau da, pertsonaren eta kapitalaren harremanak ez direla esku pribatuetan metatze soilean oinarrituko, baizik eta kolektibitatearen esku jartzean, justizia eta kohesio sozialaren bidean.
- Beharrezkoa da etorkizuneko ezker abertzalea, ezker soberanistaren baitan, bloke bakar batean egituratzea, gaur egun dauden sigletatik haratago eta era estrategiko batean, egitura ideologiko egonkorrarekin. Egitura hori erantzun taktiko batekin haratago joan beharko du.
- Edonola ere, ezker abertzaleko esparru politikoan elkartzerantz urratsak emateko ezinbestekoa da Aralarrek bere IV. Kongresuan onartutako bost oinarriak osotasunean betetzea eta helburu hori behar den denborarekin eta ez agian berehalakoan burutzea.

### 3.2.- BIGARRENA.- Gernikako Akordioaren garapena.

Gernikako Akordioa gizarteak oro har balioetsi izana eta politika mailan eman duen itxaropena direla eta, sinbolo eta erreferentzia ez ezik, Euskal Herriko normalizazio politikorako eta bakegintzarako “ibilbide-orri” ere bihurtu da. Hori dela eta, Gernikako Akordioaren legitimazio sozial eta politikoa erabakigarria da gure herriaren etorkizun hurbilera begira, eta, aldi berean, ARALAR alderdiaren ekarpen eta arriskurik handiena da.

ARALAR alderdiaren proposamenak akordioaren puntu guztiak —8ak— osorik bete daitezela izan behar du ezinbestean, guztiak “ibilbide-orri”aren parte bereizezinak direla eta bat ere ezin dela atzean utzi edo “gatazka konpontzearen ondorio” gisa aipatzera degradatu interpretatuz. Desegokia da, era berean, Gernikako Akordioa sinatu ez duten hirugarren agenteen esku uztea —ETAren esku, adibidez— zortzi puntu horietakoren baten ebazpena edo negoziazioa. Hori testuko beste atal batean arrazoitzen da, eta Anoetako Proposamenaren edukiak zaharkituta geratu ziren aspaldi.

Baina Euskal Herriaren etorkizunerako hain garrantzitsua den erreferentzia horren garrantzian —Gernikako Akordioarenean, alegia— arreta berezia merezi duten BI PERSPEKTIBA daude:

- Akordioaren eta haren kudeaketaren ondarezkotzea ekiditea.- Gernikako Akordioa Euskal Herriarena da, eta ez beste inorena. Herriarena da. Ondorioz, ezin da inor kanpoan utzi, ezin zaio inori galarazi akordiora atxikitzea. Zehazki, ezin zaio inolako preso talderi atxikitzea galarazi —ez dago horretarako esku-biderik—, ezta inolako indar politiko edo soziali ere, sinatu ez badu ere.
- Gernikako Akordioaren kudeaketa a-partidista.- Saihestezina zen Gernikako Akordioa helburu eta aprobetxamendu politikoetarako erabil zedila, gertatu den bezala, baina irizpidea ezarri behar da etorkizunerako —bakegintza eta normalizazio politikoaren arteko ezinbesteko bereizkuntza printzipioaren ondorio gisa—, ez dadin akordioa zentzu murriztailean eta beste indar politiko batzuen kontra erabili.

### **3.3.- HIRUGARRENA.- Krisi ekonomikoko egungo testuinguruan ezker abertzaleak garatuko duen esku-hartze politikorako proposamenen analisia.**

Nahitaezkoa da sakonean berrikustea ezker abertzaleak nola garatu dituen historikoki sektore politikak, jarduteko modu hori zaharkituta baitago, gainditu beharreko estrategia (politiko-militar eta abangoardista) bati baitzegokion.

Berrikusi beharreko fase historiko horretan, orotariko sektore politikak eta, batzuetan, sozialak (eskubide zibilak, sozialak eta lanekoak, ingurumeneko gaiak, hizkuntza aldarrikapenak, zibilak, etab.), “helburuak lortzeko borroka”-ren kategorizazioarekin eta berriaz sortutako herri plataformen instrumentalizazioa, batzar erreferentziazkoak, baina zentralismo demokratikoko kontrol zorrotzarekin, erakunde leninista-maoisten estiloko hondakin esterilizatzailea besterik ez dira.

Gainditu beharreko fase estrategikoan, sektore erakundeak lurpeko mizelio ikusezin edo ezkutatu bateko perretxikoak bezala hazten eta garatzen ziren, erakundeek eta estatuak behar bezala amortizatzen dituzte eta, sarritan, benetako aurrerapenarako eragozpen dira. ARALAR alderdiak, herri mugimendu sektorial horien demokratizazioa urrunetik zuzentzeari eta aldarrikatzeari uko egiteko berariazko posizio batetik, helburu politikoetarako organizazio politikoaren paper zentrala aldarrikatzen du. Kultura hori ezinbestekoa da ezker abertzale zibil, zabal eta eraldatzailea eraginkorra izan dadin.

ARALARrek bere ekimen politikoaren subjektu gizartea, herritarrak ditu. Horregatik, mugimenduekiko eta herri plataformekiko harreman berri bat bultzatzen du, erakunde bakoitzaren autonomia funtzional eta organikoarekiko errespetuan oinarritutako harremana.

ARALARren ustez, helburu politikoak, sozialak eta sektorialak parte-hartze instituzionalaren bidez eta gizarte mobilizazioaz baliatuz lortzen dira. Ekintza politikoko bi esparru horietako batek ere (instituzionala eta gizarte mugimendua) ezin du arrakasta izan bakarrik, geure burua testuinguru politiko batean kokatzen dugun lehen mundu honetan. Ekintza politiko instituzionalak gizarte mugimenduen eta herri plataformen aurreikuspen politikoa behar du iparra ez galtzeko eta sistema burokratiko eta instituzionalaren eskusibotasunak xurgatzea ekiditeko. Halaber, gizarte mugimenduek eta herri plataformek egitura instituzionalek aurreikuspenarekin jokatu ahal izateko dauzkaten komunikabideen eta kontaktuen informazioa behar dute. Eta, gainera, instituzioekin lankidetzan aritzeko ateak behar dituzte proposamenak eta kritikak egin eta instituzioen planteamendu, arau eta ekintzen aurrean jarrera bat hartu ahal izateko.

Gizartea da ekimen politikoaren ardatza. Horregatik ARALARretik, gaur egungo estrukturalak aldatzeko, eta herri eta gizarte bezala bizi ditugun egoera eta arazoei irtenbideak emateko desobedientzia zibila eta aktibismoa bultzatzen ditugu, mekanismo funtsezko gisa. Aipaturiko mekanismoak, erantzun eraginkor, erradikal eta baketsu bezala kontsideratu behar dira, aldaketa sozialerantz indarrak batzeko, kontzientzia sozial berria sortzeko, gizartea bere ekimen politikoan jabetzeko eta herri eta gizarte gisa askatasuna lortzeko bidean.

Desobedientzia zibila, garaipen bat da beti, eraginkortasun politikoari dagokionez ahula irudi badezake ere; izan ere, indarrean dauden gaiekiko erresistentzia aktiboak eragindako garaipen arrakastatsua da. Disidentziaren aldeko ekintza oro garaipen politikoak dira, eraginkortasun politikoari dagokionez lortutako emaitzak edozein direlarik ere.

Nahitaezkoa da demokrazia parte-hartzaileko beste erantzun desberdin, ireki eta demokratiko batzuk garatzea demokrazia ordezkatzaillearen osagarri gisa (ez horren ordezkatzaille gisa), ondasun eta zerbitzu publikoen kogestio proposamen sozialarekin batera —Auzolan—.

### **3.4.- LAUGARRENA.- Bakegintza eta normalizazio politikoarekin lotutako perspektibak eragindako egoera politiko berrian ARALAR alderdiak ekarpen etikoa egiteko eta koherentzia politikorako beharra.**

Gernikako Akordioa, oro har, bakea eta normalizazioa lortzeko ibilbide-orri bezala onartuta dago; horrez gain, ETAk aspaldidanik su-eten “sui generis” bat mantendu du eta, ondorioz, egonkorra dela esan daiteke; bestalde, EAOn aldaketa estrategikoa onartu da (estrategia politiko-militarretik politiko soilera); eta legalizazio prozesu batzuk burutu egin dira (Bildu) eta beste batzuk bidean daude (Sortu). LAU elementu horiek batu egiten dira eta **giza eskubide, zibil eta politiko guztiekiko errespetuaren eta indarkeriaren erabileraren etenaren aldeko eskakizun orokorra** indartzen dute. Euskal gizartearen (ezker abertzalearen gehiengo barne) zein espainiarraren gehien-gehiengoak horixe eskatzen die bai ETari, bai estatuari. Bilduk hauteskundeetan lortu duen arrakastak egoera hori indartzen du eta oso zail bihurtzen du —baina ez ezinezko— atzera itzultzeko edozein tentazio, eta horren sinbolo bihurtu da Mugarri delako ponentzia; ARALARrek irmotasunez eta inteligentziaz babestu behar du atzerazintasun hori, hori baita, hain zuzen ere, lankidetzarako eta etorkizunean, egokia bada, bateratzeko baldintza.

Inork ere ez du pentsatu behar ARALAR zalantzan jartzea denik Bildu fenomenoaren inguruko hausnarketa bat egitea —ezta positiboa balitz ere— eta betidanik aldarrikatu duen ezker abertzale zibil eta zabalaren sorrerarekin zuzenean lotuta dagoen pentsatzea.

Betidanik defendatu eta arriskatu dugu, haizearen kontra joanda ere, orain bake prozesuarekin lotuta gertatzen ari dena gertatu beharko litzatekeela. Beti egin dugu apustu herrialde honen eraketa eta kudeaketarako erabakigarria den ezker abertzale zibila eta zabala eraikitzearen alde. Baldintzak eta gertakariak dira prozesuak nola gertatzen eta garatzen diren baldintzatzen dutenak. Orain, irakurketa positiboa baino ezin dugu egin gertatzen ari denaren inguruan, eta ARALARrek ezinbestean jarraitu behar du indartzea lortzeko ekarpenak egiten. Normalizazioa nahiz bakea lortzeko egindako bidea indartzeko aukera babes soziala biltzearekin lotuta dago, eta ARALARren zentzua eta duela 10 urte jaio zenetik egin duen ekarpena berretsiko du.

ARALARrek gaur egun etorkizuneko ezker abertzale horretarako kapital politiko eta balio erantsi garrantzitsua izaten jarraitzen du. ARALARren ibilbide politikoa eztaba daezina da, ezker abertzalearen bilakaeraren alde egindako ahalegina, aurreratu eta eraikitzeko oinarri diren ekarpenak gizarteak ezagutzen dituen errealitateak dira. ARALARrek, era berean, eta ezarpen mugatua duen arren, ezker abertzalearen barruan nortasun propioa duen marka bat sortu du eta gizarteak ulertzen du oraindik urrats garrantzitsu bat dagoela egiteke, hau da, ARALARrek eta Sortuk elkarrekin lan egitea eta berriz batera egotea.

ARALARrek gertatutakoa eta ezker abertzalearen etorkizuna zein modutan osatzen ari den ulertu nahi ez izatea okerra da eta etorkizuna negatiboki baldintza lezake. ARALARren ez dugu eta ezin dugu une honetatik kanpo geratu. Unearekin bat egin behar dugu, indartu egin behar dugu, eta beti definitu izan gaituzten eta gaur frogatzen ari diren planteamenduak gehitu behar ditugu, besteen ibilbide-orria markatu dute eta.

Aipatzekoa da, era berean, sektore politiko batek baino gehiagok beren burua etengabe gailentzen dutela hauteskundeetako emaitzak beren buruari egoztean, edo beren al-daketa estrategikoari esker lortu direla esatean.

Antzeko jarrera politikoa antzematen da analisi batzuetan (Nanclareseko preso politikoen gutuna, kasu), beren exijentziak indar politiko bati zuzenduta dauden heinean (zehazki, Bilduri) eta azken hauteskundeetan izan duen arrakastan oinarrituta. Baliteke Bilduk hurrengo hauteskunderen bateko emaitzetan atzera egitea —adibidez, hurrengo hauteskunde orokorretan— edota bere kudeaketa politikoa porrot egitea —besteak beste, Bilduk lortu dituen gobernu enblematiko gehienetan gutxiengoan daudelako—;

horrez gain, hipotesi horretan ere beharrezkoa izango da bakea eta normalizazio politikoa lortzeko aurrerapenak aurreikustea eta burutzea. Horrekin lotutako aurrekariak oso esanguratsuak dira: Euskal Herritarrok Eusko Legebiltzarreko hirugarren indar politikoa bihurtu zen, PSE laugarren postuan utzi zuen, baina hurrengo hauteskundeetan —Batasuna gisa—, legebiltzarkide-kopuru erdia baino ez zuen lortu.

Hori guztia dela eta, bakegintza eta normalizazio politikoko aurreikuspenak, epe labur eta ertainera, eta Ezker Abertzaleko beste sentsibilitatearen aldaketa estrategikoa lagungarriak dira, besteak beste, egungo egoera politikorako. Itxaropen handiak daude, baita arrisku handiak ere. ARALAR alderdiaren ekarpena postulatu etikoetako eta koherentzia politikoko parametroetan egin behar da, demokraziaren eta ezkerren baldintzetan oinarrituz.

ARALARrek eginiko ekarpenek aipaturiko aurreikuspenak betetzen lagundu behar dute. ARALARrek indar metaketaren alde lan egin behar du, eta etorkizuneko Ezkerreko indar Independentista metaketaren indartze ideologikoan.

Aipamen etikoak ez du gutxiesten argumentu praktizista (ARALAR alderdiak ere erabilia) borroka armatua eteteko. Argi dago garaiz-kanpokotasunarekin lotutako argudio guztiak eta borroka armatuaren kalteak egiazkoak direla, baina egindakoaren berrikuspen morala egiteko, beharrezkoa da erreferentzia etikoa izatea.

### **3.5.- BOSGARRENA.- Egungo eredu autonomikoa ahitzea eta zaharkitzea eta ARALAR alderdiaren estatutu alternatiba, erabakitzeko eskubidea barne hartuz, AUTODETERMINAZIOA ETA LURRALDE TASUNA kontuan hartzen duen eredu gisa.**

ARALAR alderdiak beti pentsatu izan du aintzat hartzeko modukoa dela duela urte asko —1994an— ELAk Gernikako estatutuaren ereduaren agortzeari buruz egin zuen azterketa, LABekin aurrera eraman zuen ekintza-batasunean jaso zena. Ohar gehiagotan sartu gabe, nahikoa da gogoratzea 2011n oraindik eskumen transferentziak “negoziatzen” ari direla, Estatutua betetzeko eginda egon beharko luketen eskumen transferentziak, alegia. Kritika hori ez onartzeko konklusioa bat dator ezker abertzaleak —haren jatorriarekin lotuago dauden beste arrazoi batzuegatik— historikoki egin zuenarekin.

Halere, sindikatuen kritikek nahiz zenbait urte geroago beste esparru batzuetan garatu zirenek —Katalunia eta Estatut-a murriztearen kontrako kanpaina independentista— ez dute beste aukera estrategikoa edo are taktikorik ere eskaini EAEko estatutuaren zaharkitzapenagatik eta behar besteko jatorri demokratikoa ez izateagatik kritika horren aurrean.

Ibarretxe plana eta estatutu berri baterako egin zuen proposamena, erabakitzeko eskubidea modu nolabait ezkutuan barne hartzen zuena, estatutua zaharkituta zegoela eta aldatu behar zela zioten salaketei emandako erantzun enblematikoa izan ziren. Ibarretxe, gainera, bere ekimena bakegintza eta normalizazio politiko moduko batekin lotzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Saiakuntza hark ez zuen babes osoa lortu, baina Batasunaren bultzadari esker, hasieran aurrera egin zuen. Estatuak, aldiz, zorrotz eten zuen. Baina ez da ahaztu behar Ibarretxek, Mayor Orejarekin lehian, 600.000 boto baino gehiago lortu zituela EAEn, eta hori, beste edozein unetan beste inork lortu duenarekin alderatuta, beste maila batean dagoela. Zergatik ez zuen babestu Ezker Abertzaleko beste sentsibilitateak Ibarretxeren proposamena, egungo prozesuak ez badu ezta erabakitzeko eskubidea bere programan barne hartzeko asmorik ere? Ez da protagonismo kontu huts bat —hori ere bai—; funtsean, egungo bidearen oinarri ideologikoez, GAN jasotakoak eta aldebakartasunak, batik bat, garai hartakoenak ez bezalako osagai batzuk barne hartzen dituzte (batez ere Lizarrako Akordioa, eta, gero, Anoetako Aldarrikapena).

Nafarroan nafar estatutoarekiko kritikak EAEkoari buruz egindakoaren antzekoak eta paraleloak dira eta, gainera, herritarrek zuzenean onetsi ez duten estatutoa da. ARALAR alderdiak “hobetze” haren aurreko alternatiba oso bat proposatu zuen, erabakitzeko ahalmena barne hartuz eta beste egoera batzuetara aurrera egiteko igarobide gisako ikuspegi konfederal batekin

Iparraldean, estatutu gisako bat daukan departamendu baten aldarrikapena ziklikoki berriz agertzen den helburu politiko bat da oraindik, eta helburu gisa mantentzen da, baina behin eta berriz baztertzen dute. Halere, erreferentzia da, zalantzarik gabe.

Une jakin batzuetan EAOn baitan antiautonomismoa jaio eta garatu zen, eta, lehen aipatu den bezala (autonomista deituz iraindu nahi izatea), atzean geratu dela edo gainditzear dagoela dirudi. Nolanahi ere, merezi du aztertzea, gainera baino ez bada ere, zergatik zabaldu zen antiautonomismoa 2000-2008 artean:

- Estatutuetan jarritako itzaropenek huts egin zuten, behin eta berriz ez dira bete eta neke handia dago ez delako emaitza garrantzitsurik lortzen, eta, horren guztiaren ondorioz, estatutu garapena porrot gisa salatzen da. Baina sindikatuek eta aldarrikapen independentistek ez dituzte alternatibak formulatzen maila taktiko eta estrategikoetan, eta, ondorioz, oinarriko arrazonomendua da irtenbide —edo konponbide— bakarra independentzia dela.
- Ahaztu egin ohi da 1975eko KAS alternatiba eta ezker abertzaleak —Herri Batasunak— geroago egin zituen beste proposamen batzuk estatutu proposamenak izan zirela.

- Berez, Ibarretxeren ekimena(k) baino gehiago marjinatu zen —ezker abertzalearen babesari dagokionez— haren sustapena edo protagonismoa.
- Ezker abertzalean “autonomista” (sic) hitza irain bihurtu nahi izan zuten, jatorrizko proposamenekiko kontraesanean, eta bide horretara, zalantzarik gabe, ezker abertzale gisa itzuli behar izanik.

Baina Kataluniakoa bezalako adibideak guztiz argiak dira. Estatut-aren historia korapilatsuak eta Estatuak herri katalanarekiko eta haren instituzioekiko erakutsi zuen mespretxuak Katalunian inoiz baino independentista gehiago egotea eragin zuten —duela gutxi, 2011ko ekainean %44 baino gehiago, inkesta fidagarrien arabera—; baina, paradoxikoki, alderdi independentistek —ERC, esaterako— inoiz baino beherakada handiagoa jasan zuten hauteskundeetan. Nola da posible kontraesan hori? Zalantzarik gabe, hainbat arrazoi daude independentista gehiago egonik alderdi independentistek indar handiagoa ez lortzeko —CIUk ez du horrela definitzen bere burua, baina independentista ugari ditu bere egituretan—, baina sintoma hori “Ibarretxe Plana”ren garaian geratutakoaren antitesia da.

Laburbilduz, autodeterminazioa/lurraldetasuna helburu politikoen erronkak honako hauetan oinarritutako estrategia bat behar du Euskal Herrian: A) Berariaz onartzea HIRU erabaki esparruak, hiru erritmo posiblerekin eta hiru indar korrelazioen onarpenean oinarrituta: Nafarroa, EAE eta Iparralde. B) Bide autonomikoa berariaz onartzea, erabakitzeko eskubidearen eskumena barne hartzen duten estatutu berri batzuetan oinarrituta.

Lurraldetasunaren helburu politikoa, egiatan, Nafarroa auzia da. NAFARROA BAiren aurrekariak —NABAI—, hauteskundeetako indar gisa gainbeheratzen ari den arren, Nafarroaren barruan indarren antolamendua aldatu behar dela frogatu du. Ibarretxeren proposamenean oinarrituz azaleratu den gizarte mugimendurekin geratu zen bezala, kezka handiagoa piztu du indar horren kitapenak, ez zerbait desberdina proposatzen duelako, baizik eta indar hori ordezkatzeko duelako. Bada, NABAIren osaketan EAJk presentzia izateak, aldi berean eta neurririk murriztaileak eta Zapateroren boterea mantenduz, ARALAR alderdiari arazo handiak eragiten dizkio, irudi arazoak batik bat.

**Diru molde berriaren zentralismoa**, gainera, autonomien sakontzearekin lotutako erronka hurbil bat da. Zentralismoa **krisiaren ondorio** gisa hartu beharreko neurriekin justifikatzen saiatuko da. Zalantzarik gabe, **proposamen independentistek** beren formulazioan errealismo sakon bat behar dute erronka horri aurre egiteko.

### **3.6.- SEIGARRENA.- Elementu politiko berrien presentzia erabakigarria, 15M mugimendua, adibidez, demokrazia ordezkatzaillearen ereduaren oinarriak astintzen ari da.**

15M mugimendua, zati batean, “desobedientzia zibil” gisa interpreta daiteke, baina bere oinarri ideologikoa, nagusiki, ustelkeriaren aurreko borrokaren parametroetan garatzen da, printzipio eta oinarri ideologiko ondraduen aldarrikapenaren esparruan, hain zuzen.

15M mugimendua oihu soziala da, eta haren ekarpenek, proposamenek eta kritikek HIRU puntu garrantzitsu ukitzen dituzte: ustelkeria desagerrarazteko beharra, politikan soiltasuna ezartzeko beharra eta abangoardismoaren gose zaharkitua gainditzeko beharra, mugimendu politikoen antzutzeta dakarrena beti.

ARALAR alderdiak kontuan eta aintzakotzat hartu behar du mugimendu honen fenomeno eta antzeko beste batzuk, baita beren proposamenak onartu eta aintzatetsi ere, eta haien proposamenak analizatu eta eztabaidatu ere, eta, ados egonez gero bere parametro politiko propioetara egokitu behar ditu hainbat gai garrantzitsuri dago-kienez:

Hauteskunde zerrenda irekiak, eskubide zibil, sozial eta sektorialekin lotutako gaien inguruko kontsulta publikoen aurreko errekurtsioa; ustelkeria politikoaren kontra zorroztasunez borrokatzea; esparru guztietan soiltasuna exijitzea; informaziorako esku-bidea eraginkortasunez eta azkar egokitzea; gizarteko sektorerik babesgabeenen defentsa, esaterako, gizartetik baztertuak, beren etxetik kanporatuak izan direnak eta nora joan ez dutenak, etab. Laburbilduz, beharrezkoa da mezuak ez ezik, esparru guztietan indartzea egungo krisi-egoeraren ondorio larrienak jasaten ari direnei —gazteak, langabeak— beste aukera batzuk emateko proposamen zehatzak ere, sarean antolatzekeo modu berriei ere erantzunez, adibidez, 15M mugimenduari, kolektibo horiek baitituzte oinarri.

### **3.7.- ZAZPIGARRENA.- Ezkerreko estrategien diseinuan sakontzea.**

Krisiari buruzko ezkerreko irakurketa batetik abiatuak ezkerreko estrategiak diseinatzekeo lanean sakontu, bai Euskal Herrian bertan, bai Estatu, Europa zein mundu mailan.

Krisiaren aurrean munduan zehar ezkerreko ematen ari den erantzunaren ahulezia begibistakoa da. Gainera krisiaren azterketa ekonomiko soilak gainditu behar da, krisi hau beste esparru batzutan ere azaltzen ari delako. Horregatik ARALARrek ondoko atal hauetan sakontzekeo eta proposamenak egitekeo beharra ikusten du:

### **a) Sistema ekonomikoaren aldaketa proposamenak:**

- Sistema finantzieroaren eta merkatuen kontrola sistema judizial internazional batetara abiatuz.
- Sektore publikoa indartzeko estrategiak, instrumentu finantziero eta banku publikoa barne.

### **b) Elkarbizitza globalari buruzko estrategiak:**

- Diskurtso integratzaileak garatu.
- Inter- kulturalitatearen politikak defendatu eta zabaldu.
- Bakearen diskurtsoa sendotu.

### **c) Demokrazia defendatzeko estrategiak:**

- Demokrazia parte hartzailean sakondu.
- Demokrazia errepresentatiboaren defentsa, gardentasuna eta informazioaren zabaltzea bermatzeko neurriak aztertuz eta proposatuz.
- Politika indartzeko estrategiak garatu, bere funtzioa baliogabetzeko diskurtsoari kontra eginez.

# 4

## Aralarren ebazpen proposamenak



ARALAR alderdiak ezker abertzalearen esparru politiko sozialaren barruko alderdi independentista izaera duela berretsi du eta sinesmen demokratiko erradikalak ditu, eta ziur dago bide politikoak direla esparru politiko sozialean aurrerapenak eta hobekuntzak lortzeko bide bakarrak. Zentzu horretan, bake eta normalizazio politikoaren aldeko lana gure kezka nagusia eta euskal politikari egin nahi dizkiogun ekarpenak izan direla eta direla jakinda, gure ustez, ondoren zerrendatzen ditugun 10 ebazpen proposamen hauek egungo baldintza taktikoetara egokitzen direla dirudi, txosten honen hasieran adierazi den bezala:

#### **4.1.- ARALARREN ERREFERENTZIA IDEOLOGIKOAK.**

EHKOTOPIA da ARALARren erreferentziazko oinarri ideologikoa, ondorengo kongresuetan jasoriko ekarpenekin batera.

ARALARrek, berdintasunezko alderdi bat den heinean, konpromiso hau hartzen du: barneko Berdintasun Plana gauzatuko duela eta lehentasunez lan egingo duela antolamenduaren barruan bi sexuek elkar ulertzeko. Beharrezkoa izanez gero, aholkularitza eta trebakuntzarako kanpoko baliabideak, berdintasunezko harremanetarako trebakuntzaren arloko profesionalak prestatutakoak, erabiliz ere.

EKOSOZIALISMOA ARALAR alderdiaren ezkerreko politiken erreferentzia ideologikoa dela adierazten dugu. Elkartasunezko, berdintasunezko eta ondasun, ondare eta zerbitzu publikoen defentsarako sozialismoaren erreferentzia historikoak onartzen ditugu, ongizate estatuaren oinarri gisa.

ARALAR NEOLIBERALISMOAREN kontra dago, baita sistema horrek indar finantzarioaren eta estatuaren botereen ginetik duen nagusitasunaren kontra ere. Beharrezkoa da alternatibak formulatzea sistema erregularizatuz eta sektore publikoaren esku-hartzearen bitartez, eta nazioarteko kontrol judizialarekin.

ARALAR alderdiak uste du kontuan hartu behar direla garapen ekonomikoaren iraunkortasunerako proposamenak eta des-hazkunde eta lehengoratzeko ekologikorako proposamenak. Energia kontsumoaren eta iraunkortasunaren ikuspuntutik, gizakiak, une honetan, planeta bere birsortze gaitasuna baino gehiago presionatzen du. Ondorioz, egungo ekoizpen eta kontsumo eredu planetaren erreserbetan oinarritzen da, eta azpimarratzekoa da erreserba horiek mugatuak direla (petrolio, basoak, itsasoko animaliak).

Garapenera bideratutako ereduaren ondorioz, munduaren  $\frac{3}{4}$  pobrezian bizi da. Guztiok, kolektiboki nahiz indibidualki, egoera honen gaineko erantzukizuna daukagu eta

alternatibak planteatu behar ditugu, esaterako aztarna ekologikoaren ordainketa eta zorraren garapena errazteko zorraren barkatzea.

ARALARrek kontsumoa eta ekoizpena murriztea proposatzen du, klima, ekosistemak eta gizakiak errespetatzeko. Ekoizpen ekonomikoaren murrizketa kontrolatua, gizakia eta naturaren artean eta gizakien artean ere oreka harreman berri bat ezartzeko.

Jarduerak berriz kokatzea, nekazaritza tradizionala leheneratzea, enplegu produktibitatearen areagotzeak berrantolatzea, lanaldia murriztea, harreman ondasunak sustatzea, energia kontsumoa murriztea, publizitatea murriztea, I+Garen helburuak demokratizatzea, tokiko aurrezkiak tokiko proiektuetan inbertitzea... bultzatu nahi ditugun kontzeptuak dira.

ARALARrek bat egiten du hazkuntzaren eta ongizatearen gizarteak ez duela pertsona gehiagoren zoriona eragiten diotenekin; izan ere, salgaien iraungipenaren programazioan, “erabili eta botatzean” eta pertsonak “erabili eta kaleratzean” oinarritzen da.

ARALARrek herritarrak oinarri dituen osasun sistemaren aldeko apustua egiten du, bitarteko eta beharrezkoa diren informazioak herritarren esku utziaz, berorrek hezkuntz esparrutik eta baita sozialetatik ere bere osasunarekiko ardurua hartuaz; beste aukera terapeutikoa gehituz, sendagaien erabilera arrazionala sustatuz eta konpainia handiak gaixotasunei esker aberastea eragotziz. Emakumearekiko arreta berezia eta genero ikuspegiko gaixotasuna integratuz.

ARALAR transgenikoen kontra dago, eta produktu horiek desagerrarazten saiatuko da. Horretarako, nekazaritza iraunkor eta ekologikoa garatzea bultzatuko du, baliabideak eta neurriak bideratuz.

ARALAR animalien kontrako tratu txarren kontra dago, eta animalien tratu txarrak barne hartzen dituzten ekitaldiak eta ikuskizunak desagerrarazteko neurriak hartuko ditu, baita ekitaldi horiek oso errotuta badaude eta herri ohitura gisa justifikatu nahi badira ere. Animalia bakar batek ere ez du tratu txarrrik jasango, eta berorren heriotza beharrezkoa balitz, berau bat batekoa eta minik gabea izango litzateke.

## 4.2.- SAKONTZE DEMOKRATIKOA.

- ARALARREK DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA defendatzen eta sustatzen du, defendatzen dugun beste sistemaren, DEMOKRAZIA ORDEZKATZAILEAREN, muga eta nahitaezko osagarri gisa, nahiz eta berorren garapen batzuekin kritikoak izan.
- ARALARrek demokrazia sakontzearen aldeko apustua egiten du, bere eginez M15eko aldarrikapen eta proposamenak. Zerrenda irekiak sustatu eta garatzearen aldeko apustua egiten dugu, baita galdeketen garapen legegilea inplementatu eta garatzearen aldekoa ere.
- ARALARrek berretsi egiten du bere konpromisoa iruzurraren aurkako borrokarekiko, baita kudeaketa publikoaren austeritate, gardentasun eta informazioarekikoa eta sistema publikoa oinarri duen gizartearen kontrolarekikoa ere.
- ARALARREK DESOBEDIENTZIA ZIBILAREN aldeko apustua berresten du, behin eta berriz aldarrikatua eta gaur egun M15eko mugimenduaren eta bestelako interbentzio sozialerako formula eta bitarteko bihurtu dena. Desobediencia borrokarako bitarteko gisa kontsideratzen dugu: demokrazia formala kritikatzeko eta erresistentzia ekimenak burutzeko.
- ARALARREK KOGESTIO eta AUZOLANerako formula desberdinak sustatzeko konpromisoa hartzen du, ondasun eta zerbitzu publikoak kudeatzeko; helburu bikoitza begi bistan izanik: kudeaketa bera demokratizatzea eta, aldi berean, aipatutako zerbitzu eta ondasunetan kontrol publikoaren bideak mantendu eta indartzea. ARALARrek uste du zerbitzuen kudeaketa, hasiera batean behintzat, ekonomia sozial eta solidarioen bidez garatu ahal dela eta hala izan beharko lukeela, bereziki ongizateari dagozkionak (maiz multinazionalen esku uzten baitira). Kudeaketa hori boluntarioen esku ere egon liteke, betiere sindikatu eta gizarte eragileekin egindako akordioetan oinarrituta.

### 4.3.- GIZARTE ESKUBIDEAK.

ARALARrek aniztasunean oinarritutako berdintasunaren aldeko apustua berresten du, pertsona orok eskubide berberak ditugulako. Horregatik, pertsona askez osatutako eta berdintasunean, errespetuan eta elkartasun baloreetan oinarritutako gizartearen aldeko apustua egiten dugu, non pertsona orok eskubide zibil, politiko eta sozialak izango dituen, generoa, etnia, sinesmen, sexu joera, jatorria, kultura eta hizkuntza gorabehera.

ARALARrek adierazten du hizkuntza eskubideak giza eskubideen ondare direla, giza-kiaren nortasunaren berezko osagarri baitira. Hori dela eta, euskara bigarren mailan zokoratua dagoela salatzen dugu.

ARALARrek herritar guztien ongizatea helburu duten politika publikoen aldeko adierazpena egiten du, besteak beste, osasunaren, zaintza politiken eta hezkuntzaren aldekoa. Horiek kudeaketa publikoa izan behar dute, soilik horrela bermatzen baita pertsona oroaren berdintasuna.

ARALARrek zerbitzu publikoen kudeaketa aldarrikatzen jarraituko du, bai hegoaldean eta bai Iparraldean behar diren urratsak emanez.

ARALARrek lan eskubide guztien alde egiten du berriro ere, eta lan eskubideetan, eskubide sindikaletan zein ongizate prestazioetan izan diren murrizketa guztien aurkako jarrera berretsi egiten du. Halaber, bat egiten du eragile sozial eta sindikalen konpromisoarekin. Ongizate estatua suntsitzea atzerakada onartezina dela uste dugu, ez bakarrik gizakien eta gizartearen eskubideei dagokienez, baita esparru ekonomiko eta sozialari dagokionez ere.

Hiritartasun eskubidea:

- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sistematikoari aurre egin behar zaio. Horretarako, paktu sozial berri bat sortu beharra dago, xede izango duena egungo gizartearen oinarri den marko patriarkala suntsitzea, baita gizartearen garapenaren oinarri diren esparruak eraldatzea (esparru soziala, politiko, ekonomiko, kulturala eta sinbolikoa) eta hiria eraikitzeko eta herritar gisa harremanak sortzeko modua aldatzea ere. Erakunde feministekin eta emakumeen erakundeekin etengabeko harremanetan jardutearen aldekoak gara.
- Dibertsitate afektibo eta sexualari dagokionez, sistema legegile eta sozialak kontuan hartu behar du herritarron askatasun afektiboa eta sexuala. Halaber, oinordetzarako eskubidea ere bermatu behar du, besteak beste, alarguntza pentsioei, adopzioari eta sexu berresleipenari dagokionez.

- Kontuan hartu behar dugu gazteria gizarte eta herri baten sektore bat ez ezik egungo gizartearen talde dinamikoa ere badela, eta horrela ikusi behar dugu. Gainera, ez dugu ahaztu behar talde honek kezka eta arazo jakin batzuk dituela.
- Lankidetzat politikoa lehenesten dugu, gainerako herrien askapen prozesuekin bat eginez. Lankidetzat horren ildo nagusiak emakumeek eta talde feministek sustatutako berdintasunaren aldeko lana izango da eta gizakion eskubideen defentsan oinarrituko da.
- Herriarren eskubideak Euskal Herriko arlo sozial guztietan errespetatu behar dira, jaioterria kontuan hartu gabe. Hori dela eta, Atzerriartasun Legea eta haren ezarpena errefusatu behar dugu.

ARALARrek uste du immigrazioa saihestezina eta beharrezkoa dela.

Etorkizuna kulturantza da, eta horrek ez luke oztopo izan behar gure herriaren bizirau-pen eta garapenerako. Aitzitik, aniztasun horrek sendotu eta aberastu egin behar gaitu. Migrazioari dagokionez, Euskal Herriak bere bide propioa egin behar du, berezkoak dituen gauzak eta arrotzak dituenak bat eginez, elkartasuna adieraziz eta historikoki emigratzailea izan den herriaren nortasuna berretsiz.

Herri gisa bizirik irauteko garrantzitsuena ez da herria osatzen duten pertsonen jatorria, baizik eta pertsona horien gogo eta gaitasuna haien hizkuntza eta kultura gordetzeko eta beren egoera sozial propioaren kontzientzia garatzeko, betiere beste errealitate sozial eta herriekin elkar biziz.

Immigrazioari dagokionez, ARALARrek tolerantzia, elkartasuna eta xenofobiaren aurkako borroka sustatu behar ditu gizartearen. Atzerriartasun lege justu bat sustatu behar du, baita integrazioarako neurri positiboak ere, eta etorkinen giza eskubideak erabat errespetatu daitezkeen eskatu.

#### **4.4.- INTERNAZIONALISMOA.**

ARALARrek herri guztiekiko errespetu, elkartasun eta justizia sozialaren aldeko jarrera ideologikoa adierazten du, eta konpromisoa hartzen du bere aldarrikapen eta ekimen guzti-guztietan kolektiboen eta norbanakoaren giza eskubideen alde borrokatzeko, baita aberastasunaren banaketa bidezkoa eta berdintsua izan dadin lan egiteko ere.

Halaber, duintasunari dagokionez, ARALARrek herri guztien arteko berdintasuna aitortzen du, eta beharrezkotzat jotzen du nazioartean baliabide eta estruktura izatea, pertsona guztien justizia, askatasuna eta berdintasuna bermatu ahal izateko. Justizia unibertsala lortzea da indar aurrerakoi guztien helburua, eta, beraz, baita ARALARrena ere.

ARALARrek alderdi europartzat du bere burua. Europar Batasunaren (EB) proiektuan sinesten du, kritika asko egin ahal zaizkion arren, bakean, progresuan eta demokrazian oinarritutako esparrua sortu baitu.

ARALARrek batasun demokratikoago, sozialago eta solidarioago baten alde egiten du. Era berean, Aralarrek herrien autodeterminazio eskubidea aitortuko duen Europar Batasuna aldarrikatzen du. Europako hezkuntza eta kultur aniztasuna babestuko eta sustatuko duena. Halaber, Europako hizkuntza guztiak aitortuko dituena. Beraz, ARALARrek herrien Europaren alde egiten du.

ARALARren helburuetako bat da EBren barruan euskal Estatu bat sortzea.

ARALARrek EBeko indar politiko soberanista, ezkertiar eta ekologistekin lanean segituko du. Bereziki, Europako Aliantza Askearekin (EFA), bertan behatzaile gisa aritzeko eskaera egin baitu alderdiak.

#### **4.5.- INDEPENDENTISMOA.**

ARALARrek proposamen independentistaren alde egiten du berriro ere, aniztasunaren defentsa demokratikoa oinarri hartuta eta nazionalitatea aukeratzeko eskubidea herri-tarren aukera pertsonal gisa defendatzea proposatuz. Abiapuntutzat hartuz zaharkitua eta agortua dagoen gaur egungo eredu autonomikoa, eta ekimen proposamen gisa izanik erabakitze eskubidea jasoko duten estatutu berrien garapena. Euskal gizartearen erabakitze eskubidea bertan jasoz.

ARALARrek adierazten du hiritartasun eskubidea giza eskubidea dela, baita pertsonen aukera ere, testu konstituzional eta estatutarioetan jaso beharrekoa. ARALARrek aldarrikatzen du hizkuntza eskubideak, giza eskubideen parte direla eta oinarri ideologiko horretatik abiatuz dibertsitate linguistikoaren defentsa irmoa egingo du.

ARALARrek adierazten du hiritartasun eskubidea giza eskubidea dela, baita pertsonen aukera ere, testu konstituzional eta estatutarioetan jaso beharrekoa. ARALARrek aldarrikatzen du hizkuntza eskubideak, giza eskubideen parte direla eta oinarri ideologiko horretatik abiatuz dibertsitate linguistikoaren defentsa irmoa egingo du.

ARALARrek defendatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, konstituzio propioa izan behar duela Europako nazioen markoan, herritar gehienek hala erabakiz gero.

#### **4.6.- HIZKUNTZA, HEZKUNTZA ETA KULTURA ESKUBIDEAK.**

ARALARrek adierazten du EUSKARA eta euskal kultura Euskal Herriaren identitate ikur nagusiak direla, eta, giza eskubidea den aldetik eta hizkuntza eskubideak defendatzen dituenaz gero, legalki eta sozialki EUSKARA hizkuntza gutxituen esparruan zokoratua dagoela salatzen dugu. Halaber, egoera hori konpondu beharra dagoela adierazten dugu, justiziak hala eskatzen baitu.

ARALARren helburua herritar eleanitzez osatutako Euskal Herria euskalduna lortzea da, eta bide horretan euskararen normalizazio sozialean aurrera egiteko neurri eraginkorrak bultzatuko ditu, herritarren hizkuntza eskubideak oinarri izango dituztenak.

ARALARrek pertsona guztiek duten hezkuntza eskubidearen alde egiten du. Ildo berean, aukera berdintasunen eta ikerketa eta berrikuntza publikoaren alde egiten dugu.

ARALARrek adierazten du lehentasunezko aukera dela euskal eskola publiko askea. ARALARrek ezinbestekotzat jotzen du hezkuntza sistema propioa izatea: kalitatekoa, berritzailea, inklusiboa, kohezitzailea, benetako heziketa integrala helburu izango duena eta ez ezagupenen transmisio soila. Aipaturikoa, gaur egungo, euskal hezkuntza egiturek jarraitu beharreko azken xedea izanik.

#### **4.7.- ETORKIZUNeko EZKER ABERTZALEAREN ELKARLAN ESTRATEGIKOA ETA TAKTIKOA.**

ARALARrek berretsi egiten du IV. Biltzarreko ondorioetan ezker abertzale zibil eta zabalaren behar eta betekizunen inguruan esandakoa. ARALARrek elkarrizketarako eta negoziatorako proposamena egingo die espresuki AB eta Batasunari (Sortu), bere garaian ABk positiboki baloratuz onartu baitzuen, baina Batasunak ez baitu oraindik erantzun. Proposamen estrategikoa da, egoera koiuntural eta elektoralen ginetik dagoena, ponentzia honetan aurretik aipaturiko postulatu etiko eta ideologikoetan argudiatua. Kolaborazio hori era progresiboan bideratu beharko da, elkarlanaren bidez, harremanak sendotuz, konpromiso politiko eta elektroalean elkarrekin jardunez, eta abar. Elkarlana beharrezkoa da etorkizuneko Ezker Abertzalea eraikitzeo, ezkerreko elkarketa independentista moduan hartua izango dena, eta Ezker Abertzalearen baitan dauden sentzibilitate historikoez gain, beste ezkerreko eta ekologistak diren indar soberanistei ere irekita egongo dena.

Elkarlaneko prozesu horretan, funtsezkoa da ARALAR alderdi kohesionatua izaten jarraitzea, barne mailan zein antolakuntza mailan, etorkizuneko ezker abertzale hori eraikitzeo.

ARALARrek bere apustu elektoralak aztertu eta berrikusi behar ditu. Gaurtik hasita, eta aurrean ditugun hauteskundeetara begira, ezkerrekoen, abertzaleen eta aurretakoien puntu komunak bilatuz. Halaber, gure jarrera, aukera eraginkorra, osatzera orientatua egon behar da, arlo desberdinetan eragin eta gauzen egoera aldatu ahal izateko.

Kongresuan hartzen diren akordio estrategikoen lehenengo adierazpide taktiko gisa planteatu behar ditugu hauteskunde orokorrak. Definitu beharra dugu hauteskundeetara elkarrekin joateko begi bistan ditugun alderdiei helarazi beharreko planteamendu politikoak. Gako horiek ondorengoak izango dira:

- Hauteskunde orokorretara eraman beharreko eredu eta norekin joan erabakitzeko orduan, Euskal Herrian irekitzen ari diren garai berriak kontuan hartu behar dira. Etorkizun horren hasiera helburu izanik, eta, horretarako, ahal den neurrian ezker abertzaleko bi sentzibilitateen artean konfiantzak berreskuratzen joanez.
- Madrilgo ordezkariak bere jarduera politikoa garatzeko oinarrian izan beharreko helburu politikoa bakegintza eta normalizazio prozesuaren defentsa da; Gernikako Akordioa oinarri izanik eta akordioa oso-osorik garatzeko konpromisoa hartuz, puntu horiek elkargune baitira, bai Estatuaren konfrontaziorako, bai gainontzeko indar politikoeekin akordioak lortzeko.

- Gaur egun bizi dugun egoera zailari (krisi ekonomikoa, atzerakada sozialak, murrizketak zerbitzu sozialetan...) aurre egitea, erabaki aurrerakoi eta ezkerrekoak hartuz politika, gizarte eta kudeaketa mailan. Alternatiba argia proposatuz finantza sistemaren, politika fiskalen, lan erreformen eta eskubide sozialen arloan, eta konpromisoa hartuz Diputatuen Kongresuan gai horien inguruan adosten ari diren politika eta neurrien aurka egiteko konpromisoa hartuz.
- Nafarroan eta EAEn formulazio aukera desberdinak egon daitezkeela onartu. Nahiz eta formulazio biak aukera estrategiko bakarrari erantzun behar dioten, errespetatuz errealitate eta behar desberdinak, eta erabakitzen esparruak.

Horregatik, epe laburrerako honako hau proposatzen dugu:

Diputatuen **KONGRESURAKO:**

- A)** Nafarroan, NABAI-Bildu koalizioa edo aipaturiko koalizioetako indar politikoek adosten dutena.
- B)** EAEn, Bildu-ARALAR koalizioa edo aipaturiko marka elektoralean dauden indar politikoek adosten dutena.

Guzti hori, interesa agertu lezaketen indar ekologista eta ezkerrekoiei irekia.

**SENATURAKO** EUSKAL HERRIA BAI koalizioa, bertan EAJ integratuz, erabakitze eskubidea ardatz izanik.

ARALARrek positiboki baloratzen du eta babesten du Iparraldeko hautetsiek egindako indar metaketarako proposamena: “Bil gaiten”...

**4.7.bis.-** ARALARrek Ezker Abertzalearen beste sentsibilitatearekin bat egitearen inguruan zuen ikuspegia berreraiki behar du. Ezker Abertzalearen beste sentsibilitatearen aurrean, Sorturen aurrean nola jokatuko dugun zehaztu beharra dugu. Akordio bat lortu behar dugu Ezker Abertzale bakarra sortzeko. Akordio hori lortzeko, garaiari, hauteskunderi edo gizarteari lotuta sortuko diren edo sor litezkeen ekintzetan parte hartuz.

Erabaki hori, Sorturekin elkartzearen aldekoa da argi eta garbi, eta ez da inolaz ere ulertu behar ARALARren barne arazo gisa, ez iraganeko, ez egungo ezta etorkizuneko arazo gisa ere. Ez dugu inolaz ere proposatzen ARALAR alderdi politiko gisa desagertzea, ezta banatzea ere. Aitzitik, orain erabat ezinezkoa da jakitea Sortuk noiz onartuko duen ARALARren eskaera. Era berean, eta ARALARren nahia gorabehera, ezinezkoa da jakitea zein jarrera hartuko duen Ezker Abertzalearen beste sentsibili-

tateak akordio horren inguruan. ARALAR, oraindik ere, Gernikako Akordioan adierazi genuen moduan, berme bat da hasitako bakegintza eta normalizazio prozesua ongi amai dadin. Oraindik ere beharrezkoak dira ARALARren ekarpenak lurralde-ereduez, pluraltasunaz, barne demokraziaz eta gizartean eta erakundeetan hartu beharreko jarrerara eta ekintzen ingurukoak. Balore horien alde eginez, ARALARrek giza kapital handia pilatu du, eta etorkizuneko Ezker Abertzalearen sorreran bere ekarpena handia izango da.

#### **4.7.1.- Nafarroa.**

Maiatzeko hauteskunderen ondoren Nafarroan sortutako egoera politiko berriaren eta UPN eta PSNk osatutako koalizio gobernuaren aurrean, beharrezkoa dugu apustu eta konpromiso berriak egitea. Era berean, eta gertakari horiei aurre egiteko, mapa politikoa garatu behar dugu, hala izan baita ARALAR eta NAFARROA BAI sortu zirenetik. Aurrerantzean ere hala izan dadin lan egingo dugu, etengabe aurrera egiteak mesede egiten digulako.

Kontuan hartuz legegintzaldia hasi besterik ez dela egin, eta, beraz, NABAIren beraren lana oraindik ere ikusteko dagoela, baita UPN eta PSNren gobernuaren aurka egiteko Bildurekin eta Ezker Abertzalearekin elkarlanean arituz adostu dezakeguna ere. Madrilgo hauteskunde orokorrek planteamendu zabalagoak egiteko aukera ematen dute, elkarlanean oinarrituz eta Madrilgo Kongresura eramanez aldaketaren aldeko Nafarroaren ordezkapen ahalik eta handiena; baita geure-geureak diren auzien (eta UPN, PP, eta PSOEtik aldentzen gaituztenen) defentsa egin eta etorkizunean alternatiba garaile bat sortzen laguntzeko.

2011ko NABAI, EAJ eta pertsona independentez osatutako beste guztiekiko konpromisoa berresten dugu, baita gizartearekikoa eta legegintzaldi honetan Nafarroako erakunderen alde lan egitekoa ere. ARALARrek uste du NABAI eta Bildu azaroko hauteskunde orokorretara elkarrekin joateko lan egin behar dela. Era berean, atea zabalik utzi behar da (denek egokitzen hartuz gero) Ezker Abertzaleak ere parte hartzeko. Proposamen horrek Nafarroaren beharrei erantzutea du helburu, baina kontuan hartu behar du ere Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetako egoera eta garapen politikoa.

ARALARren helburua da Nafarroa Bai osatzen dugun guztioi egungo garai politikoaren garrantziaz sinestaraztea, baita elkarlanerako akordioen beharraz eta haien onurez ere, NABAIrenak berarenak hasieran izan ziren moduan. ARALARrek ahalegin handiz ekingo dio horri, eta NABAI osatzen duten beste kideek horren kontra egingo balute, elkarlanerako bestelako formulak kontuan hartu beharko lituzke.

ARALARren elkartzeko eta adosteko gogo hori, NABAI taldearena ere izatea espero dugu, eta beste aldeak ere adierazi beharko du. Azken emaitza hori ez da izango arazo bat akordio hori lortzeko orduan, baina ARALARrentzat oso garrantzitsua da jarduteko konpromisoen nondik norakoak adostea eta Madrilgo Kongresuko ekintzen garapena zehaztea.

Madrilgo ordezkariak Nafarroaren berezko izaera eta beharrak lehenetsi behar ditu, baita berezkoak ditugun gaiak ere. Dena dela, horrek ez du inolako kontraesanik ez arazorik eragingo, eta ez da ere inolako eragozpena izango EAEko beste lurraldeetako ordezkariarekin batera aritzeko; batzuei zein besteei dagozkien gaien alde, baita normalizazio prozesuari, bakeari, geure nortasuna eta hizkuntzaren aitorpenari eta erabakitzeko eskubideari berari eragiten dioten gaien alde ere. Halaber, parlamentuko jarduera serioa, egonkorra eta aktiboa izango da pertsonen beharrei, eskubideei, bizikaltateari eta gizarte ereduari dagozkion gai guztiak defendatzeko eta proposatzeko orduan.

#### **4.7.2.- EAE.**

ARALARren elkartzeko eta adosteko gogo hori, NABAI taldearena ere izatea espero dugu, eta beste aldeak ere adierazi beharko du. Azken emaitza hori ez da izango arazo bat akordio hori lortzeko orduan, baina ARALARrentzat oso garrantzitsua da jarduteko konpromisoen nondik norakoak adostea eta Madrilgo Kongresuko ekintzen garapena zehaztea.

Madrilgo ordezkariak Nafarroaren berezko izaera eta beharrak lehenetsi behar ditu, baita berezkoak ditugun gaiak ere. Dena dela, horrek ez du inolako kontraesanik ez arazorik eragingo, eta ez da ere inolako eragozpena izango EAEko beste lurraldeetako ordezkariarekin batera aritzeko; batzuei zein besteei dagozkien gaien alde, baita normalizazio prozesuari, bakeari, geure nortasuna eta hizkuntzaren aitorpenari eta erabakitzeko eskubideari berari eragiten dioten gaien alde ere. Halaber, parlamentuko jarduera serioa, egonkorra eta aktiboa izango da pertsonen beharrei, eskubideei, bizikaltateari eta gizarte ereduari dagozkion gai guztiak defendatzeko eta proposatzeko orduan.

Lau herrialdeak eta bi erabaki esparruak talde parlamentario bakar batean lotzeak ez du inolako kontraesanik ezta arazorik eragingo, eta EAEn eta Nafarroan erabaki esparruetan jarduteko aukeratzen diren pertsonen ez diete eragotziko dagozkien gaien aitortza, trataera eta defentsa.

#### **4.8.- ARALARREN BERRANTOLAKETA.**

ARALARrek beharrezkoa du barneko esparru desberdinak berregokitzea, baita Hegoaldeko Zuzendaritzakoa ere, aurrean ditugun erronka bereziei eraginkortasunez erantzuteko.

Kohesio ideologikoa, komunikazioa, politika instituzionala eta elektorala izan behar dira helburu eta xede bakarra, eta horretarako, ARALARrek ezarritako helburuak bete ahal izateko, behar-beharrezkoa da kudeaketa gaitasuna izatea.

Datozen urteotan ARALARrek ahalegin berezia egingo du, militante kopuruak gora egin dezan eta lurralde mailako zabalkundea, herri guztietara, baina bereziki biztanle gehien dutenetara. Horretarako batzorde bat eratuko da.

#### **4.9.- KOMUNIKAZIOARI ETA KOMUNIKABIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA.**

EZKERABERRI fundazioa, zein propagandako ekimen guztiak eta komunikazio hedapeneko egin beharrak bitarteko digital ireki eta periodiko batean zentratu behar dira (ahal bada egunerokoa izango dena), bestelako bitartekoen faltak maiz bigarren mailan uzten baikaitu.

ARALARrek konpromisoa hartzen du, barruko zein kanpoko hedabideen bidez, militantziari eta herritarrei erantzuteko egungo gertaera sozial, kultural eta politikoen inguruan hartzen ditugun jarreraren harira, baita egiten ditugun hausnarketa, kritika eta balorazioen harira ere.

#### **4.10.- MILITANTEARENTZAKO ZUZENKO ARRETARAKO PROPOSAMENA.**

Militantearen figurak, bere eskubide eta betebeharrekin, alderdiko zuzendaritzarekin harreman zuzena izango du maila guztietan.

Militanteekiko harreman eta arreta hori garatzea lehentasunezko gaia da, eta premiaz egin beharreko araudi batean jasoko da.

Une honetan, baliabideak urriagoak diren arren, bestelako aukerak ere irekitzen zaizkigu, eta egitura xumeago batekin antolaketa-eredu parte-hartzaileago bat abian jartzeko aukera bikaina dugu. Politikek eta erabakiek bezainbesteko garrantzia dute bitartekoek, nolakotasunak, eta gure bitarteko eta antolaketa-ereduaren bitartez erakutsi behar dugu praktikan erdietsi nahi dugun gizarte-eredua. Antolamenduari begira honako ildoak garatuko ditugu:

- Parte-hartzea eta militanteekiko harreman zuzena gauzatzeko antolamendua eta dagokion araudia garatu.
- Barne-komunikazioa indartu.
- Trebakuntza eta eztabaida sustatu Ezkerraberri Fundazioaren bidez.

Euskal Herria, 2011-09-17.

## **Txosten Politikoa.**

### **V. BILTZARRA**